



Urdazubiko errota eta klaustroa biziberrituak

Hogeita hamar urtez itxita egon ondotik, udaberri-rako artoa ehotzen hasiko dira berriz Urdazubiko errotako errotariak. Axularren sorteria, Berroberriko lezeak, Dantxarinea-ko bentak... lehendik ere turista aunitz erakartzen

zituena Urdazubik eta orai errotarekin turisma gehi-ago bixkortuko dela uste du Pantxo Iribarren alkateak. Herrikoek ere izanen dute aitzinako jendearen lan-bideen eta lan-tresnen berri. Errotaz gain, historia luzea duen monastegiko

klaustroa ere jendeari zabaldu nahi zaio, zola moldatu ondotik. Axularri buruzko erakusketa ere zabaldu nahi dute. Urdazubiko Udalak herriko langile bat hartuko du errota eta klaustroan gidari lanak egiteko.



3 Elkarrizketa:

Peio ZESTAU

Ezkurrako alkateak dioenez, «legealdia bukatzerakoan uraren arazoa moldatua utziko dugu herrian». Euskal Herriko politikari dagokionez, Zestauk Iruñeko Udal Ordezkarien Biltzarrara positibotzat jo du eta bera bertan izan zen. «Su-etena dela eta, nahiko momentu ona da hizketan hasteko gutxienez».

6 Iritzia:

Polemika zakurren erasoengatik

Azken aldian denen ahotan dagoen gai honi buruz, albaiteko, guraso eta zakurren jabeen iritzia jakin nahi izan dugu.

25 Kirola:

Aresoko taldea jaun eta jabe Euskal Herriko sokatira txapelketan

Hau idazterakoan 560 eta 640 kiloko txapelak eskuratutako zituen eta 680koa bidean zegoen. Nagusi dira Etxezarretaren mutilak.


TTIPI TXARTELA: Orain txartela izateak abantaila gehiago ditu. Erosi zeurea eta erabili.



ZILO BOLAK EGITEKO PLASTIKOAK



- ➔ Belarra ziloratzeko erabiltzen den plastikoetan liderrak
- ➔ Koloreak: xuria, marroia, berdea eta beltza. Hiru kapako plastikoa
- ➔ 10 urteko esperientzia
- ➔ Kalidade eta prezio arteko erlaziorik hobereana



**IZAKIAK BETIDANIK
KIN DU SILOTITEREKIN
BILTZEA DELA
KONTSERBATZEKO
MODURIK
HOBERENA**



AROZ - BERRI, S.A.

NEKAZAL TRESNERIA

N-121-B errepidea, 54. km.a • Tel: 948581021 - 948580258 • Fax: 948452103 • 31730 IRURITA

Osasungintzako Profesionalak

Jorge Sopena Colombero

**hortz
klinika**

© 948 630647
Itzea 1, 1. • BERA

**Begoña
Mitxelena
Sagastibeltza**

KIROMASAJISTA

Elizgibela, 6 • DONEZTEBE

☎ 948 45 07 43

**MAGNETISTA
NATUROPATA**

IKUSMENA BERRESKURATZEA

GIHARRE ARAZOAK

OPERAZIO ONDORIOETATIK
INDARTZEKO TRATAMENDUAK

KONTSULTA ORDUTEGIA

Goizez 9etatik 12etara. Arratsaldez 2-7etara. Ordua eskatu

San Marcial, 7-4. IRUN

BELARRA

Herbodietetika - Janaridenda

© 948 510192 • Elbarren, 35 • LEITZA

Terapiak Zentrua



Masajeak
Akupuntura
Homeopatia
Naturopatia

Gorosabel 36 - I.D. • © 943654255-943 671635 • TOLOSA

Jose Luis Bihotza
IRURITA RUBIO
HORTZ KLINIKA

DONEZTEBE

Rosa Seminarioa, 19
948 450 267

LEITZA

Manuel Lasarte, 7
948 610 713

LARUN

Hortz klinika

Guy RANDE Doktorea
HORTZ ZIRUGIAN DOKTOREA

ORDUTEGIA

Astelehen, ortzegun eta larunbatetan,
arratsaldeko 3,30etatik 7,30etara.

San Esteban, 37 behe • © 948 631057 • BERA

DATUAK.....

❖ Peio Zestauk lehendabiziko legealdia beteko du Ezkurrako alkate gisara. Aurreko lau urteetan zinegotzi eta alkate ordea izan zen.

❖ Elizondoko Lanbide Eskolan ari da lanean eta egunero egiten du joan-etorria, «elurrak uzten badu behintzat».

❖ Ezkurrak 260 bizilagun inguru ditu eta jausten ari da dexente. «Adineko jende asko dago eta jaiotza gutxi. Inguruko herrietara bizitzera joateko joera dago».

❖ Ekainaren 13ko udal hauteskundeei buruz ez dute deus pentsatu. «Momentuz legealdi hau ahalik eta hobekien bukatzea da buruhauste bakarra».

TESTUA:
AITOR AROZENA
ARGAZKIA:
FOTO MENA

✍️ Peio ZESTAU *Ezkurrako alkatea*


“Legealdia bukatzerakoan uraren arazoa moldatua utziko dugu”

ALKATE BEZALA LEHEN LEGEALDIA BETETZEKO PUNTUAN ZAUDEN HONETAN, ZER BALANTZE EGITEN DUZU?

Herriarentzat balantze nahiko ona dela uste dut. Diru aldetik, dexente gusta diren obrak egin ditugu. Nagusia saneamendua eta zola-berritzea izan da, guzira ehun milioi eskaseko gastuarekin. Bestalde, baserrietako ur-hornidura berritua zen, baina hiru gelditu ziren gabe. Orain baserri hauek ere ura sartu da. Pilotalekuko teilatua berritu eta pareta pintatu da. Kanposantua sarrerako etxola berritzeko lanak eman dira berriki eta legealdia bukatu baino lehen ur-depositotik iturrira tubo berria sartu nahi dugu. **HALERE, IZANEN DA LANEN BAT EGITEKO ASMOA BAI, BAINA AZKENEAN EZIN IZAN DUZUENA EGIN.**

Pare bat badira, bai. Hirurteko Plangintzan sartu genituen eta ez zituen onartu, dena kolpera ezin zitekeela egin esanez. Horietako bat baserrietako bideak or-migoiztatzea zen, euriarekin gaizki gelditzen direlako. Eta bestea kanposantua haunditzea eta txukuntzea zen. **EZKURRA MALERREKAKO MANKOMUNIDADEKO KIDE DA, BAINA LANERA EDO ESKOLARA**

► *“Egoera bitxia da gurea: lana, eskola edo erosketak egiteko Leitzara jotzen dugu eta zabor-bilketa edo medikua berriz, Malerrekatik hartzen dugu”*



«Su-etena dela eta, nahiko momentu ona da hizketan hasteko gutxienez».

LEITZALDERA GEHIAGO JOTZEN DU. NOLAKO HARREMANA DUZUE BATZUEKIN NAHIZ BESTEKIN?

Egoera nahiko bitxia da gurea. Bosgarren mailatik aurrera haurrak Leitzara joaten dira eskolara eta Sarriora lanera ere asko joaten dira Ezkurratik. Erosketak egiteko ere, ohitura gehiago dago Leitzara joateko. Bestalde, za-

borra, medikua eta beste zerbitzuak Malerreka aldetik hartzen ditugu. Mankomunidadean sartu ginen bere garaian eta hor segitzen dugu, bileretara joaten...

LEITZA, GOIZUETA, ZUBIETA... INGURUKO HERRIAK UEMAN SARTUAK DITUZUE. NOIZBAIT ZUEK ERE SARTZEA PENTSATU DUZUE?

Egia esan ez dugu inoiz planteatu. Ezkurraren denak euskaldunak gara eta udaletxean ere euskaraz egiten ditugu bilera guziak. Idazkariak paper ofizialak euskaraz idazteko ikasta-

roak egin ditu bi urtez segidan.

EUSKAL HERRIKO UDAL ORDEZKARIEN BILTZARREAN ERE IZAN ZINEN IRUÑEAN. ZEIN ITXURARA HARTU ZENION?

Positiboa izan zen. Nire ustez jendea politikariak baino aurrerago doa gai honetan. Gure zonaldea nahiko abertzalea da eta joatea egoki zela pentsatu nuen. Beti atzera begiratu beharrean aurrera ere begiratu behar dugu, su-etena dela eta, nahiko momentu ona baita, gutxienez hizketan hasteko.

Batez ere, Berroberriko lezearengatik eta San Salvador monastegiarengatik da ezaguna gaur egun Urdazubi. Dantxarineako bentek ere bisitari aunitz biltzen dute urtero. Pedro Agerre Azpilkueta, Axular, Urdazubin sortu zen 1566an. Euskal literaturaren aintzindaritzat hartzen den "Gero" liburuaren egilea Axular baserrian jaio eta bere sortetxearen izena hartu zuen goitizentzat. Urdazubi bisitatu nahi duenak bertze aitzaki bat izanen du hemendik aitzin, Udalak hiru mende baino gehiago dituen errota moldatu eta jendea sartzeko zabalduko baitu uda partean.

TESTUAK: AITOR AROZENA

TURISMA URDAZUBIN

Errota eta monastegiko klaustroa biziberrituak

Urdazubiko errota artoa eta garia ehotu du guttienez hiru mendetan. Horretaz gain, turbina ttiki baten bidez hainbat urtez argindarra ere sortu du Urdazubi, Leorlas, Telleria eta Hiribere auzoeta-

rako. Urdazubira, Baiona edo bertze herri haundia-goetara baino lehenago ailegatu zen argi elektrika. Errota zein urtetan eraiki zen zehazterik ez dago. 1713. urtean Pedro Iribarrenek berreraiki zuen, baina Nafarroako Artxibategian gari-siloak egiteko li-

zentiak daude, XIII eta XIV. mendeetan idatziak.

Urte aunitan partikularren esku egon zen, baina pittan-pittan, arto-irinaren salmentaz bizitzea gero eta zailagoa bilakatu zen. 1950ean, Andres Urrutia Iparragirre jabeak Urdazubiko Udalarri saldu zion erro-

ta, 218.000 pezetaren truke. Urdazubira ere ailegatu ziren aurrerapenak: argi elektrika sartu zen eta errota turbina gelditu zen. Gainera, artoa gutitua zenez, 1966an errota gelditu egin zen.

Hogeita hamahiru urte beranduago, berriz ere la-





Errotara ura daraman kanalea eta han giblean, errota bera ageri da. Barneko tresnak eta paretak moldatzen ari dira orain eta udaberrirako akituko dituzte lanak. Gordean zeuden harri ederrak bistan geldituko dira eta errota lanean ere ikusi ahal izanen da.

nean jartzeko asmoa azaldu du Urdazubiko Udalak. Moldatze lanak egiteko sei milioi pezeta pasatuxeko aurrekontua bertzerik ez dago, baina kontuan hartu behar da duela zortzi urte kanpoaldea eta teilatua moldatu zela. Hiru errotharriak (bi artoa ehotzeko eta bertzea gariarendako) ere ongi daude, baina errodamiendoak garbitu eta koipeztatu behar dira. Sei milioi horietatik %70 (lau milioitik goiti) Cederna-Garalur erakundeak ordainduko du. Urdazubiko Bengoetxea eraikuntza enpresa ari da moldatze lanean eta Pantxo Iribarren alkateak adierazi digunez, «*otsail hondarretarako edo martxo hasierarako finituko dugu*». Alkatearen erranetan, lan hauetan «*harri ederrak eta izigarri politik ateratzen ari dira, lehen gordeak zeudenak: arkuarekin egindako ate eta leihoak... gure aitzinakoez lan haundiak egiten zituzten. Guk hori dena ikusi eta ikastea on izanen da*».

Monastegiko klastroa ere jendeari zabalduko zaio

Errotaz gain, turistek monastegia bisitatzeko aukera ere izanen dute. Joan den urte akabailan Urdazubiko Udalak hitzarmena sinatu zuen Iruñeko Artzapezgoarekin. Idatzia araberaren udala izanen da monastegiko klastroaren arduraduna hurrengo hogeitertan. Beraz, hainbat urtez jendearentzat hertsirik egon den monastegia laister zabalduko da. Herriko Etxeko asmoa,

klastroaren zola moldatzea eta gero, Axular idazleari buruzko erakusketa eta arkeologi museo ttipi bat zabaltzea da. Monastegiaren eta herriaren historia ezagutaraztea ere egokia izanen litzateke Pantxo Iribarren ustez. Berak dioenez, ordea, «*hori dena egiteko dirua behar da, hori da betiko problema eta abentura sobera haunditan ez dugu sartu nahi*».

Errotan eta monastegiko klastroan gidari lana egiteko herriko langabetu bat kontratatzea erabaki du Udalak, maiatzetik urria bitarte. Modu honetan, Nafarroako Gobernuko Lan Departamentuak lanpostuak sortzeagatik udalei ematen dien dirulaguntza jaso ahal izanen da.

Berroberriko lezeak eta turismo bulego-denda

Turismarekin lotutako asmo gehiago ere badituzte Urdazubiko Herriko Etxean. Dantxarinear, guardia zibilaren aduana moldatu eta turistei herriari, Xareta eskualdeari edo Bertizko Turismo Partzuergoari buruzko informazioa eskaini eta zenbait gai salduko dien bulego-denda egiteko gogoaz aldu du Pantxo Iribarrenek. Eraberean, Berroberriko lezean bildutako gauza ezberdinak turistei erakusteko bordaxka bat egitea gustatuko litzaiok. «*Hori hurrengo legealdiko alka-tearentzat uzten dut*». Hor ere sosa beharko da, baina turistendako eskaintza zabaltzeko xedea argi dute Urdazubin. ■

San Salvador monastegiaren historia

Xaretarrak Elkarte (Urdazubiko taldea)

Urdazubiko monastegia zein urtetan eraiki zen zehazten duen idatzirik ez dago. Halere, Erdi Aroko kronikak X. mendean (970-994) bizitu zen Sancho Mitarra izenekoa batez solastent digute. Zaldun honek lurrrak zituen Pirinioen iparraldean, gaur egun Urdazubi dagoen lekuan eta bere jabetzak eta jauregia kallonje talde bati ematea erabaki zuen, Orreagaren gisako monastegi bat eraiki zezaten. Bertsio hau sinesgarria iruditzen zaigu, bi arrazoiengatik: lehenik, Urdazubiko monastegiaren armarrria Sancho Mitarra kontearenaren berdina da, hau da, makila eta ilargi erdia. Zugarramurdiko erretoarenean oraindik ikus dezakegu armarrria hau. Bertzetik, Urdazubiko elizan egin diren obra batzuetan, hila-rri bat agertu zen honako inskripzio honekin: *Come Sanctus M.*

Monastegiko fraideei XII. mendean Aita Santuak eskainitako babesaren eta Nafarroako Erregeek egindako mesedearen berri ere ematen da kroniketan. Izan ere, estrategikoki, Iruña eta Baiona artean, ederki kokatua zegoen monastegia.

1230. urtean abatetxe maila hartu zuen. Gisa honetara, Urdazubiko abate mitradunak aulkia izan zuen Nafarroako Gorteetan. Honela, Nafarroako erresumaren politikan parte hartu zuten fraileek. Eserlekua Gaztelako tropek Nafarroa inbaditu zuten arte mantendu zuten.

Urdazubiko monastegiak Nafarroako erregeentzat zuen garrantzia

hagitz handia zen. Teobaldo I erregeak denbora aunitz eman zuen bertan. 1248. urteko martxoan, urrian eta azaroan, zenbait eskutitz eta agindu sinatu zituen Urdazubin eta hemen jaso zuen Baionako kontzejuaren omenaldia.

Zenbait urte lehenago, 1234. urteko ekainaren 23an, errege honek Xaretako mendietan zegoen gaztelu bat oparitu zien fraileei. Gaztelu hau zutik egon zen 1589. urtera arte. Fraideen ustez Zugarramurdiko sorginek bota zuten gaztelua.

Bertzalde, Teobaldo II erregea—bere aitzinakoa bezala, Nafarroa eta Frantziako errege—bortz aldiz egon zen Urdazubiko monastegian. Datu azpimarragarria da, hamazazpi urteko erregetzan bortz aldi horietan bakarrik zanpatu baitzuen Nafarroako lurra. Horieta-ko batean, 1264ko abenduan “Lantzeko frankoei” idatzitako foru-karta sinatu zuen. Bere testamentuan ere kontuan hartu zuen gure monastegia, Amairuko peajetik hartutako 40 soldata eman baitzizkion.

Urdazubiko Monastegiak diru aunitz izan zuen baina 1521ean guztiz lur jo zuen. Urte horretan monastegiko abateak, Orbarako Juanek, monastegiko diru eta jabetza guziki erabili zituen Amairuko Gazteluaren defentsan.

Klastroari dagokionez, gaur egungoa Zubietako Martin harri zizelkariak XVII. mendean egin zuela dakigu bakar-bakarrik.



LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 6.950 ALE

Helbidea:

TTIPI-TTAPA ALDIZKARIA

Herriko Etxeko Plaza, 1

E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa: (+34) 948 63 11 88

Faxa: (+34) 948 63 12 91

Internet:

<http://www.jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa>

e-mail:

ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com

Jabea: TTIPI-TTAPA FUNDAZIOA.

Presidente: Pello Apezetxea.

Kudeatzailea: Joxemanuel Irigoien.

Zuzendaria: Aitor Arozena.

Publizitatea: Kulturkari, S.L.

Administrazioa: Amaia Goia.

Erredakzioa: Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Berriemaileak: Joseba Azpiroz,

Esteban Arozena,

Juana Mari Saizar,

Iban Isasi,

Patxi Iriarte,

Patxi Otxandorena,

Jaione Otxandorena,

Alba Fernandez,

Lorena Galarregi,

Pablo Mendiburu,

Franck Dolosor,

Margari Etxenike,

Koro Irazoki,

Ana Mari Etxeberri,

Martine Goietxe,

Frederick Berruet,

Elixabet Iturria,

Garbiñe Maiz,

Oskar Txoperena,

Pello Apezetxea,

Aitor Arozena,

Asier Gogortza.

Kolaboratzaileak: EHNE Nafarroa,

Mikel Bezunartea,

Belarra...

Inprimategia: Gertu.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leizta,

Goizueta, Arano, Areso, Baztan,

Urdazubi eta Sarako udalak,

Bortziritako Euskara Mankomunitatea,

Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Harpidetza sariak:

Hego Euskal Herria2.000 Pta.

Ipar Euskal Herria140 Libera

Europa3.500 Pta.

Amerika15.000 Pta.



Aldizkari honek Nafarroako Gobernaren laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Polemika zakurren erasoengatik

Erasorako zakurrak hagitz modan jartzen ari dira skin taldeen artean



Juan Ramón OSTIZ
Albaiteroa. Doneztebe.

Badaude zakur arraza batzuk borrokarako prestatuak daudenak: Pitbull Terrier-ak, American Terrier-ak, Dogo argentinarrak, Tosa japoniarrak, Fila brasildarra... eta bertze batzuk erasokorrek direnak: Doberman, Boxer eta Rottweiler-ak. Horrelako zakurrak eleganteak direlako erosten dira auniztan. Hemen Dogoak eta Terrier-ak ez baina Rottweiler eta Boxer bakarren bat badago. Moda kontua izaten da. Eraso-zakurrak hagitz modan jartzen ari dira skin taldeen artean.

Gure kontsultan ez dugu orain arte zakurren eraso larriren berririk izan, baina normalean jabearen arazoa izaten da. Ezin da horrelako zakur bat pisu batean sartu, kanpora ateratzean edozein gauzarekin lehertzen dira-eta. Jabea zera aholkatuko nieke, konpainia zakur bat nahi badute zakur tiki bat eros dezatela, ehizirako nahi badute ehizikoa...

Guk, zakur haundien erasorik ez, baina jaten ari direnean ukitzeagatik edo zeloengatik zakurren autsikiak hartu dituzten gaixoak maiz izaten ditugu kontsultan. Dena den, hemen arrisku gehiago izaten da artaldeak erasotzen dituztelako, basurde zakurrek bapitat. Horregatik hobe da zakurrak behar bezala aseguratzea.

Izugarrizko indarra dute eta badakigu zer gertatzen ahal den



Goizalde URDANILLETA
Berroetarra

Aditu dudana gatik arraza fuertek dira zakur hoiinak, baina nik uste hezitzailearen arazoa dela batez ere. Baldin eta nola hezitzen duzun zakur bat, gero modu batera edo bertzerara jokatu du. Dena den, ez da berdina arratoi-zakur batek edo hoietako batek autsiki egitea. Izugarri indarra dute eta badakigu zer gertatzen ahal den.

Gero, baldintza batzuk daude, horrelako zakur haundiak ezin dituzu pisu tiki batean sartu, behar batzuk dituzte-eta. Azkenean animaliak dira, eta ez dakizu nola erreazionatzen ahal duten. Niri, bi haurren ama izanik, beldurra ematen didate jarrera agresiboa duten zakurrek. Berroetako plazan zakur pila bat ibiltzen da beti, eta badakigu haurrak nolakoak diren, zakurrak zirikatzen dituztela, belarritik tira, buztanetik tira... guk etxean ere badugu zakur bat, baina egundaino ez die haurrei deus egin nahiz eta behatzen ahoan sartu eta denetik egiten dioten.

Hala ere, badira bertze arraza haundiago batzuk eta horretan erakutsi ezker jarrera erasokorra dute. Gure herrian badago zakur bat motoei segika-eta ibiltzen dena, baina nahiko tikiak denez...

Nik badakit gure hiru zakurrek ez diotela inori deus eginen



Gloria GARCIA
Rottweiler baten jabea

Guk Igantzin arazo aunitz izandu dugu hiru zakurrekin, baina batez ere Rottweiler-a ekarri genuena. Izugarria izan zen. Hemen ez zaizkie horrelako zakurrak gustatzen. Ehizirako zakurrak bai, artzai zakurra ere bai, baina euren ez dute ulertzen zuk konpainia zakur bat eduki nahi izatea.

Gure zakurra arras goxoa eta ona da, jendeak kontrakoa uste badu ere. Nik badakit nere hiru zakurrek ez diotela inori deus eginen, badakit ez direla erasokorrek. Beharbada zakur hauek defentsarako edo nagusiaren edo etxe baten babeserako sena gehiago dute. Arazoa da ergel batzuk zakur hauek erabiltzen ari direla pistola-bat edo nabal baterabili beharretan. Duela gutti Irunen bi bandaren arteko borroka bat izandu da, eta Pitbull-ak eramaki zituzten. Azkenean zakurrak erdi hilak utzi zituzten.

Nik zakurrari ez diot erakusten norbait etxean sartzen denean lepora salto egiten, alderantziz, nerekin eta nere inguruan daudenekin ongi erlaxionatzeko hezitzen dut. Guk lagun bat dugu Irunen zakurren sikologoa dena, eta berak beti erraten du zakurra zuk hezitzen duzun bezalako delatza.



ttipi-ttapa fundazioak
Europako Batzordearen dirulaguntza jaso du

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKO ETA LABORALA

LESAKA:

- Asteleheneetik asteazkenera 9-13tara eta 16-20tara
- Ortzegun eta ortziraletan, 8etatik 15etara

Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6 • Tfnoa: 948 637050

BURLATA:

ARTEKARI, S.L., © 948133328•133346. Faxa: 948133713

Non: La Viña karrika, 4-behea • 31600 BURLATA

- ☛ Langile Autonomoak
- ☛ Nekazariak eta mendi-langileak
- ☛ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ☛ Lan-kontratutarako laguntzak
- ☛ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ☛ Diru-laguntza ezberdinak
- ☛ Kontabilitateak
- ☛ IVA eta IRPF
- ☛ Errenta aitopenak
- ☛ Elbarritasun eta jubilazio tramiteak
- ☛ Bideragarritasun planak

IRAKURLEAK MINTZO

Herri-talde eta alderdi politikoei:

Gutun honen bitartez, Baztan, Bortziriak eta Leitzako Euskal Herrian Euskaraz-ek bere kezka azaldu nahi die bereziki herri-talde zein alderdi politikoei. Ekaineko hauteskundeak nahiko bertan ditugun une honetan, zuen zerrendak dagoeneko osatzen hasiak izanen zaretelakoan gaude. Horregatik, oso une aproposa zaigu zuei bi eskaera egiteko.

Gure herriak euskaldunak izanik, bere zinegotziek euskaldunak izan behar dutela iruditzen zaigu. Hortaz, ezinbesteko baldintzat jotzen dugu hautesleen zerrendak euskaldunez soilik osatzea. Hala ez izanez gero, atzerakada ederra jasoko luke euskararen erabilpenak eta herritarron eskubideen kontra joko luke.

Horrekin batera, bigarren eskaera hau luzatzen dizuegu. Zuen programetan eta he-

mendikaitzineko egintzetan, euskara ardatz izan dadila. Zuen ahaleginak izan daitezela bertako zerbitzu publikoetan, esate baterako, udala

eta mankomunitateetan, osasun-etxeetan, epaitegietan, komunikabideetan, Gizarte Segurantzaren zein INEMen... euskaldunok euskaraz egin

ahal dezagun. Oraindik ere lan franko egin behar da hala izan dadin.

Beraz, ez eman bizkarra herriari, garai hauetan eran-

tzunkizun handia baituzue.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ



KULTURKARI

publizitatea  zerbitzuak

Herriko Etxeko Plaza, 1 • E-31780 BERA (Nafarroa)

Tfnoa.: (+ 34) 948 63 11 88 / Fax: (+ 34) 948 63 12 91

Diseinu eta publizitatean, zerbitzu integrala

- Irudi korporatiboa** ▼ **Publizitatea prentsan**
- Logotipoak** ▼ **irratian eta**
- Foiletoak** ▼ **telebistan.**
- Aldizkariak** ▼ **Publizitate**
- Katalogoak** ▼ **kanpainen**
- Diseinua** ▼ **antolaketa**

OHARRA:

*Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren fotokopia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, **ttipi-ttapa** bere esku izanen du horretarako eskubidea. Ez dira argitaratuko beren nortasuna agertzen ez digutenen iritzirik.*



TTIPI TXARTELA



5.000 pezeta ttipi-ttaparen alde



eta...



zuk nahi duzuna zure alde

**Eskatu lehenbailehen zure
TTIPI TXARTELA eta aprobetxatu
ematen dituen abantaila guztiak**

© 948 631 188

IRITZIA

KOLABORAZIOA

 **Joseba IRAZOKI** *Funverako langilea.*

Funveran lanpostuen balorazioa zintzilik dago



ELAko 7 eta LABeko 2 kidek osatzen duten Funverako enpresa komiteak, hainbat hila-

beteko negoziazioen ondoren, fabrikaren etorkizuna orekatu eta sendotzeko hitzarmenak sinatu ditu fabrikako zuzendaritza eta Nafarroako Gobernuako Industria arduradunekin. Langileen ordezkariak hiru hilabetez aritu dira Nafarroako Gobernu eta Saveria enpresaren artean egindako proiektua ahal zen heinean hobetzeko borrokan. Aipatu behar da lehen-dabizi enpresa komiteak onartu behar zuela proiektua, eta gero langileek bozketa bidez konfirmatu behar zutela.

Akordio emankorrek eta berte:

Negoziazioen ondotik honako akordioak hartu ziren, berteak berte: hitzarmena hiru urtez luzatzea (1999-2001); soldata igoerak finkatzea; denbora gehien daramaten 11 aldibaterakoak finko izatera pasatzea... Baina berte zenbait gauza alde batera utzi behar izan du dira hitzarmena sinatzeko. Adibidez, 2000 eta 2001 urteetan 11. artikulua indarririk gabe egonen da, eta beraz, bi urte hoietan ez da aldibaterako bakar bat ere finko bihurtuko. Denbora tarte horretan bertan plantila 137 langiletik 95era murriztuko da, beti ere, proiektuak eskatzen dituen betebeharrak segituz. Hortaz, ezintasunen bidez, borondatezko baje bidez edo berte modu ba-

tez egiten saiatuko dira, edota azkeneko kasuan plantiladoiketa bat eginez. Azkeneko aterabide hau hautatzen bada enpresa publikoak edo Nafarroako Gobernuak 75 milioi pezeta emanen ditu horrelako murrizketa traumatikoa goxatzeko.

Balorazioa:

Langileen ikuspuntutik konbenioa positiboa da, barneko konbenioa eta 11 kontratu finko berriak mantendu egiten delako, eta finkoentzat aldibaterako kontratuak arautzen dituen 11. artikulua indarrean sartuko dela-

Fabrikazio nagusia bera ere

harritu egin zen lan berean

aritzen diren langileen arteko

desberdintasunak ikustean.

ko berriz 2002. urtean.

Baina ez dugu aiantzi behar langile multzo handi batek ez zuela begi onez ikusten lanpostuen balorazioa bezalako gai garrantzitsu bat konbenioz kanpo uztea gaur den egunean lan berbera egiten duten langileen artean maila desberdintze nabarmenak daude-eta. Orain dela 5 urte baino gehiago zintzilik dagoen gai bat da, nahiz eta orain bi urte irizpide batzuk ezartzeko saiakera egin.

Aipagarria da fabrikazio nagusia bera ere harritu egin zela lan berean aritzen diren langileen arteko desberdintasunak ikustean. Dena den, komitearen adostasunarekin edo gabe, lanpostuak baloratu ordez langile talde murriz baten balorazio pertsonala egin da gaur egun.

PRENTSATIK BILDUTAKOAK

11 GALDERA LABUR



Nafarkaria 99ko otsailaren 12a

«Kanpaina urtarrilaren bukaeran hasi genuen. Herri bakoitzean taldek sortu dira eta lantokian, etxez etxe, aportazioak egitea eskatu da Fundazioarentzako. Finkatua dago 500 laguntzaile 12.000 pezeta buruko, gisa horretan bilduko delako 6 milioi pezeta. Kanpainak helburuak beteak ditu Etxalarren».

«Margotzeaz ez zara nekatzen; margotzen ez dudana egunetan iruditzen zait ez dudala ezer ere egin».

Ana Mari MARIN
Margolaria. Elizondo.
Egunkaria 99-02-14

Joxemanuel IRIGOIEN
Ttipi-ttapa Fundazioa
Nafarkaria 99-02-12

- ◆ **Eskubaloia, laxoa edo areto futbola?**
- ❖ Zonalde honetako kirola denez, laxoa.
- ◆ **Nondik ateratzen duzu txapelak gordetzeko lekua?**
- ❖ Txapelak gordetzeko baldin bada edozein tokitik.
- ◆ **Ze talderen alde jokatu behar dugu datorren txapelketan?**
- ❖ Bakoitzak ikusi beharko du baina nik jokatu nuke Doneztebeko edozein talderen alde.
- ◆ **Bar Titi ere azken urteotan argi nagusitzen ari da. Nekatzen al du favorito izateak?**
- ❖ Guk ez dugu ikusten favoritotzat gure burua. Bai ordea aukerak dituen talde bat bezala.
- ◆ **Eskubaloiko entrenatzaile izateko zer da garrantzitsuago, sikologo edo artzai ona izatea?**
- ❖ Ez bat ez beste, zaletasun handia edukitzea aski da.
- ◆ **Errekarentzat amets bat?**
- ❖ Gazte askok ongi pasatzea kirola eginez.
- ◆ **Kirola egiteko debekatua dago besta?**
- ❖ Ez da komenigarria, baina Errekan, dudarik gabe, ez.
- ◆ **Eta entrenatzailearentzat?**
- ❖ Bai, noski.
- ◆ **Zer kirol berri probatzea gustatuko litzaizuke?**
- ❖ Parakaidismoa edo antzeko edozein.
- ◆ **Nola ikusten duzu hemengo kirolaren etorkizuna?**
- ❖ Kezkaturia baina denbora berean itxaropenarekin.
- ◆ **Eta orokorrean?**
- ❖ Itxaropenarekin baina oraindik ere kezkaturia.

**Patxiku GANBOA**

DONEZTEBE

Errekako entrenatzailea; laxoan eta areto futboleko txapelduna

ttipi-ttapa telebistaren programazioa

ASTELEHENA, 1

13:00 **Herriz Herri:** Herrietako berrien bilduma herri bakoitzeko berrimailen eskutik.
21:00 **Berriak**
21:30 **Jokoa Solas:** Kirol emaitzak eta berriak.

ASTELEHENA, 8

13:00 **Herriz Herri:** 21:00 **Berriak**
21:30 **Jokoa Solas:** Asteburuko kirol jardueren errepa-soa.

ASTEARTEA, 2

13:00 **Berriak** (errepika)
13:30 **Jokoa Solas** (errepika)
21:00 **Berriak**

ASTEARTEA, 9

13:00 **Berriak** (errepika)
13:30 **Jokoa Solas** (errepika)
21:00 **Berriak**

ASTEAZKENA, 3

13:00/13:30 **Berriak** (errepika)
21:00 **Berriak**
21:30 **Bidegurutzean**

ASTEAZKENA, 10

13:00/13:30 **Berriak** (errepika)
21:00 **Berriak**
21:30 **Bidegurutzean** Kultur eta gizarte gai buruzko magazina.

ORTZEGUNA, 4

13:00 **Berriak** (errepika)
13:30 **Bidegurutzean** (errepika)
21:00 **Berriak**

ORTZEGUNA, 11

13:00 **Berriak** (errepika)
13:30 **Bidegurutzean** (errepika)
21:00 **Berriak**

ORTZIRALA, 5

13:00/13:30 **Berriak** (errepika)
21:00 **Berriak**
21:30 **Herriz Herri**

ORTZIRALA, 12

13:00/13:30 **Berriak** (errepika)
21:00 **Berriak**
21:30 **Herriz Herri** Herrietako berrien bilduma herri bakoitzeko berrimailen eskutik.

Nafarroako Bertsolari txapelketa Tuteran abiatu da

Finala martxoaren 21ean izanen da Lesakan

TTIPI-TTAPA

Tuteran larunbat honetan jokatu den kanporaketarekin abiatu da 1999ko Nafarroako Bertsolari txapelketa. Guzira hemeretzi bertsolarik hartuko dute parte Nafarroako Bertsosale Elkarteak, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza eta Kultura Departamendua eta Nafarroako Aurrezki Kutxaren babesean antolatutako txapelketa honetan. Saioak eginen diren herrietako udalak ere laguntzaile dira.

Hemezortzi bertsolarik lehendabiziko kanporaketan parte hartuko dute, seina bertsolariko hiru saioetan. Finalurreko saiorako sailkatzen diren hameka onenek, Estitxu Arozena txapelduna izanen dute esperoan.

Tuterako saioan Manolo Arozena, Nerea Bruño, Ekintza Landa, Iñigo Olaetxea, Aritz Saragueta eta Julen Zelaieta aritu dira.

Ortziral honetan, otsailak 26, izanen da bigarren saioa Burlatako



laz Elizondoko finalean aritu zen zortzikotea: Iñigo Olaetxea, Estitxu Fernandez, Bittor Elizagoien, Xabier Legarreta, Estitxu Arozena, Manolo Arozena, Jexux Arzallus eta Xabier Silveira. Aurten Arzallusek ez du parte hartuko.

Argazkia: Jagoba Manterola

Musika Eskolan, gaueko 10etatik aitzinera. Hemen Mikel Altzuart, Bittor Elizagoien, Oskar

Estanga, Jean Louis Harinordoki "Laka", Fermin Mihura eta Xabier Silveirak hartu-

ko dute parte.

Bertsosaleek ez dute atsedean hartzeko asiti gehiegirik izanen, hirugarren kanporaketa saioa larunbatean izanen baita, Lizarrako Musika Eskolan, arratsaldeko 4,30etan. Estitxu Fernandez, Pello Goikoetxea, Iñigo Ibarra, Xabier Legarreta, Joxema Leitza eta Juan Mari Lopez ariko dira lehian.

FINALA LESAKAN MARTXOAREN 21EAN

Finalurreko lehendabiziko saioa martxoaren 7an izanen da, Beteluko pilotalekuan, arratsaldeko 4,30etatik aitzinera. Finalaren bila saiatuko den bigarren taldeak Etxarri Aranzten kantatuko du martxoaren 14an. Hitzordua Kultur Etxean izanen da, arratsaldeko 4,30etan.

Final nagusia, azkenik, Lesakako pilotalekuan jokatuko da martxoaren 21ean, arratsaldeko 4,30etatik aitzinera. Zortzi bertsolarik hartuko dute parte azken saioan.

Hemeretzi bertsolari txapelaren bila

Ohikoekin batera, lau bertsolari gazte lehen aldiz ariko dira aurtengo Nafarroako txapelketan: Julen Zelaieta beratarra, Juan Mari Lopez lesakarra (sortzez oiarzuarra izan arren), eta Araitx bailarako Pello Goikoetxea eta Aritz Saragueta. Bertso eskolen fruitu berriak plazaratuko dira berri ere aurten. Bertze batzuek, ordea, ez dute lehiaketan parte hartuko. Jexux Arzallusek txapelketa utzi du eta Antonio Olan eta Ortzi Idoate kanpoan daude.

Aurtengo txapelketaren berrikuntza nagusia finalean ikusiko da. Beti bezala, zortzikotea hasiko da, baina azkenean, bi bertsolariren artean aukeratu beharko du epaimahaiak aurtengo txapelduna. Epaimahaiaren ez da aldakatarik.



ZALAIN
Zalain Auzoa
948631106
BERA

Boda eta banketeak ematen dira

J. RAMOS
Zolak akutxilatatu eta barnizatzen dittut
948631342 BERA • 948637172 LESAKA

948 630 800
ALZAGA
• Gidatzeko karneten tramitazioa
• Karneten berritzea

ALZAGA - J. RAMOS
Alzate, 19 • 948630786 • BERA

BORZO
948630052 • Zalain • BERA

Saverak Funvera lantegiko kapital gehiena erosi du azkenean

Fundiziotako langileak ados agertu dira sinatutako konbenioarekin

ASIER GOGORTZA

Otsailaren 10ean sinatu zen Saverak lantegiak Funvera erosteko akordioa. Nafarroako Gobernuak (orain arte Funverako nagusia) eta Saverako zuzendari-tzaren arteko negoziazioak luze eta zailak izan-
du dira, baina azkenean ailegatu dira akordio batera.

Hemendik aitzinera, beraz, esku pribatueta-
ra bueltatuko dira ber-
riz Berako Fundizioak.
Gogoratu 1993an Nafar-
roako Gobernuak ero-
si zuela lantegia, hamar-
kadaren hasieran bizitu
zen krisi latzarengatik
ixteko puntuan zegoen-
ean. Orduztik sasoi ber-
ritu egin da fabrika, lan-
gile kopurua bikoiztuz
eta fakturazioan ere goi-
ti egin.

Langileak ere ados

Fundiziotako langi-
le gehienek begi onez
ikusten dute Nafarroako
Gobernuak eta Funvera-
ko Zuzendaritzak negoi-
ziatu duten lan-konben-
nioa. Konbenio horren
arabera 147 langileiza-
tetik 95 izatera pasatu-
ko ziren hiru urteren bu-
ruan. Otsailaren 9an
egindako bozketan, 125
langiletatik 119 konben-
nioa onartzearen alde
ateri ziren, 5 bertzerik



Goiko

Giro ona eta mozorro aunitz aurtengo inauterietan

Kaldereroek eman zioten hasiera iñaute garaia urtero bezala ezkontza eginez, eta igandean iñude eta artzaiek hartu zieten erreleboa. Denetara 30 bat bikote ateri ziren, baina konpartsakoak, aldiz, jendez eskas xamar ibili ziren. Biharamonean, bestondoari ahal den moduan garaitzeko, zingar arrautze eskean ateri ziren mozorro koadrilak egun argiz, eta arratsean, herriko ostatuetan ibili ziren goizaldeko ordu tikiak arte.

Aurten ere karroza desfilea egin da, baina ez da lehiaketarik egin, azken urteetan irabazleak ez baitziren sariaren bila joaten.

ez kontra, eta langile bat abstenitu egin zen.

Aldaketa batzuk produkzioan

Bertzalde, Saverako inbertsio taldeak Funvera-
rako produkzioa egoki-
tu nahi du, 700 eta 1.000
milioi arteko inbertsio-
ak eginez. Horrela, Fun-
verak tortzio barrak egi-
teari utziko dio 2001.
urtean, eta horren par-
tez ballesten produkzioa
bultzatuko da.

Emakumearen Astea 99, martxoaren 6tik 8ra egingen da

Urtero egiten duten gisara, martxoaren 8rako ekitaldi berexiak antolatu dituzte Uxua Emakume taldekoek. Heldu den larunbatean hasita, hiru egunez zabalik egonen den erakusketa jarriko dute Kultur Etxean.

Bertzetik, igande arratsaldean, 7,30ak aldera antzerki saioa izanen da ikusgai Kultur Etxean bertan. Gaiak, edo antzezlanaren izenburuak behinpin interesgarria iduri du: «*Lección de orgasmo*».

Azkenik, nahi duten emakumeek afaria egingen dute martxoaren 8an Zalaín jatetxean. Bertara deitu izena emateko (948 631 106). Prezioa: 2.000 pta.

flash

❖ **Telletxeari asilo politikoa ukatu**
egin dio Portugalgo Administrazio Auzitegi Nagusiak. Otsailaren 25erako, hau da, ortzegun honetarako, Portugal utzi eta bertze estatu batera joan behar-
ko du beratarrak. Jose Luis Telletxea 1996tik bizi da Portugalen, herrialde horrek Espainiaren estradizio eskaerari ezezkoa eman zionetik hain zuzen.

❖ Guatemalari buruzko erakusketa

ideki dute astelehen honetan Kultur Etxean. Larunbata bitarte ikusteko aukera izanen da arratsaldeko 5,30etatik 8etara egonen da idekia.

❖ Mendi Bizikleta

Normalean sasoi honetan egiten bada ere, aurten atzeratu egingen da Berako Itzulia. Beharbada iraila aldera egingen da, jende gehiago etortzeko.

❖ Jon Abril

da Berako Kultur Dinamizatzaile eta Kultur Batzordeko koordinatzailea. Otsailaren hasieran egindako esaminean berak ateri zuen punturik gehien. Hemendik aitzinera Kultur Etxeko beheko solairuan egonen da egun erdiz. Telefonoa: 948 631 222.

ROMANO PINTURAK
Barnealdeko dekorazioa, pintura, papera, moketa, kautxo eta sintasola.
© 948630941 • 948631137 • BERA

ie Iriarte-Echandi, s.l.
• Aholkularitza
• Artekari-tza
• Aseguruak
Kanttonberri | • BERA • Tel eta Faxe: 948 631 169

SAROB
okindegia
SANDERS Pentsuak
Eztegara 41, Tfnoa: 948 630 899 - BERA

LESKA



Igandean 43 zako-zahar atera ziren. Astelehenean, berriz, Pirinio aldeko almadia izan zen karrozen desfileko protagonistetako bat.

TTIPI-TTAPA TELEBISTA

Eguraldia lagun, giro ederra izan da aurtengo iñauterietan

Bertzalde, udal pilotalekua moldatzeko dirulaguntza eskatu da

AITOR AROZENA

Bertze urte batez joan zaizkigu iñauteriak. Aitzineko urteetan eguraldi kaxkarrak izan bazen, aurtengoan hotza bai, baina euririk ez zuen egin asteartera arte. Honela, zako-zaharren itzulua eta karrozen desfilea ikusgarriak izan ziren.

Igandean, 43 zako-zahar atera ziren, horietatik zazpi neskak. Orain Mikel Iriartek zuzentzen duen musika bandaren laguntzaz, beraien ibilaldi zarpaila egin zuten. Asteleheneko karrozen desfilean ere moztorro ikusgarriak izan ziren: Titanic-eko protagonistak itsasontzi eta guzi, erreka-karrikan barna jausten ziren almadiak, eskola-

umeen au(s)to-busa, espaziountzia, artaldea, indio eta bakeroak, NBAko jokalariek... eta tartean utzi izanen ditugun bertze hainbat karroza eta moztorro karrikaratu ziren.

Baserri auzoetan, Fraindarrak eta Goita-

rrak, ohitura segituz etxez etxe eskean ibili ziren.

Udal pilotalekuaren moldatzea

Udal pilotalekua moldatzeko 6.817.872 pezetako aurrekontua duen proiektua ahoba-

tez onartu du udal batzarrak. Horretarako Nafarroako Kirol eta Gazteria Institutuari dirulaguntza eskatu zaio. Insitututu honek hiritik bat ((2.249.897 pezeta) ordainduko lule eta Udalak gainerakoa (4.567.975 pezeta).

Euskarari buruz Miguel Sanz lehendakariak errandakoak ez ditu salatu Udalak

Miguel Sanz Nafarroako Gobernuak Lehendakariak euskarari buruz errandakoak ez ditu salatuko Udalak, PNVko sei zinegotzik aurkako botua eman baitzuten. HB eta EAko zinegotziek, berriz, moztorroaren aldeko botua eman zuten eta PNVko bertze batek ez zuten bozkatu.

Alkateak, botua azaltzerakoan, moztorra Nafarroan PNVk alkatetea duen herrietan bakarrik aurkeztu dela erran zuen, «Lesakako Udala Nafarroako Gobernuaren aurka jartzeko». Moztorra erretiratzea proposatu zuen Bortzirriak, Malerreka eta Baztango herrietan tratatu arte.

HBko ordezkariak, bere aldetik, HB dagoen udal guzietan aurkeztu dela erran zuen eta edozein gisara, «*ondokoei begiratu gabe udal honek nahiko heldutasuna izan beharko luke Sanzek euskarren kontra egindako adierazpenak zer iruditzen zaion erabakitzeke*».

flash

Jone Fagoaga
ehiztari gazteak sari berri bat eskuratu du. Asturiasko Colunga herrian jokaturako autonomia arteko txapelketan garaile izan zen bakarka, 28 puntuko aldea ateriz bigarren sailkatuari. Taldeka Nafarroa laugarren izan zen 9 punturekin (8 berak lortuak). Txapelketan parte hartu zuen emakume bakarra izan zen Jone.

Kontzertuak Saski Berri eta Atxaspin
Joan den larunbatean LIF taldea aritu zen Saski Berrin eta hurrengoan, otsailaren 27an, Zein (Amasay ohia) eta Petti ariko dira Atxaspin, gaueko 10,30etatik aitzinera. Bertzalde, Atxaspi ostatuaren hamargarren urteurrena dela eta besta izanen da martxoaren 5etik 7rako asteburuan.

Herriko etxeko teilatua
konpondu behar da, itaxura saila baita ganbaran dagoen Herri Liburutegian eragina dutenak. Hori dela eta, herriko lau eraikuntza enpresei luzatu zitzaizkien aurrekontuak aurkezteko gonbitea. Bik aurkeztu dute beraien eskaintza eta onena Sarobe anaiaena da: 4.061.440 pezetan eginen dute.

Kixkur
Ileapaindegia
Tel: 948 637429
Bittiriako Plaza, 3 behea
LESKA

PABELLOIAK SALGAI LESAKAN
Beharren arabera zati daitezke
Zatiak 120m²tik goiti.
Lanean sartzeko prest.
Tfnoa. 948 637258 / 607 424129

IRU BIDE
ERRETEGINA
Tfnoa: 948 637 127
LESKA

Deñe
LENTZERIA
MERTZERIA
Tfnoa.: 948 627 514
Behoko Plaza 8, LESAKA

ETXALAR

Udala ez dago ados osasun zerbitzuko orduak murriztearekin

Lehengo ordutegiak mantentzeko sinadurak ematen ari dira herritarrak

PELLO APEZETXEA

Udalak Gobernuari idatzitakoak honen erantzuna izan du, baina ilun samarra. Ordutegia ez dela murriztu dio Gobernuak. Gero, ordea, bertze hau erran du: medikuak lehengo ordu kopuru bera duela, baina, hondarrean, bertako lana akautzen deanean, bertze herrietara joanen dela, lan gehiago duten medikuei laguntzera. Hori murriztea da edo ez? Dena den, Kontsultategiko papelean ordutegia aldatu dela erraiten du, eta hori goitik aginduta egin da, noski. Horregatik, Udalak bere protesta agertu du, Gobernuak orain arte izan duen jorkaeratik, eta gaia ongi argitzeko galdetu dio. Ez, ordea, hori bakarrik. Lehengo ordutegiak mantentzeko eskatu du

Udalak, baserrien banaketa, eremuaren mendizua, etabar kontutan hartuta. Bitartean, herritarren sinadurak bilzen ari dira, ostatu eta dendetan.

Bi langile hartu nahi ditu Udalak

Zazpi hilabetez,

maiatzaren 1etik azaroaren 30era luzatzen den denboraldian lan egiteko nahi ditu. Gobernuari dirulaguntza galdetu dio, bertze urteetan bezala.

Aurten eginen den zenbait obra

Gobernuaren lagun-

tzaz hartutako langileen bidez, honako obrak egitea pentsatu du Udalak: Andutzetako aparkalekua, Goikolandako bidea moldatu, iturri batzuk egin eta moldatu, hala nola, Larraburuan, Mariskineko Saroian, Saroizarren; euri uren kanalizatzea,

Iñarreta eta Andutzeta auzoetan; karriketako zuloak moldatu.

Oihan subasta bat hartu eta bertzea ez

Insignis pinuko lotea, ia 5 milioi pezeta-ko prezioa duena, Leonet B.Ck hartu du. Bigarrenari, ordea, haritz amerikarrez osatutako loteari, inork ez dio eskeintzarik egin.

Hondarreko hau bigarren aldiz aterako da salmentara, erosleak errexago animatzeko %10 merkeago.



Ortzegun Gizen eta Iñauteak

Ortzegun Gizena hotza izan da aurten, eguraldiari dagokionez, baina haurrek ez zuten bestan hutsegin: mozorrotu, herrian itzulia eman, eta, batez ere, antzerki saioak eskeini. Inaute egun nagusia bustia gertatu zen, baina karrozak karrikan barrena ez ziren gelditu.

TTIPI-TTAPA TELEBISTA

XATURBETXEA

JATETXEA
 Tfnoa: 948637027 **LESAKA**

ANA
janaridenda
 Bittiria, 41 • © 948637944
LESAKA

• bitxikeriak •
 • opariak •
 • enmarkazioak •
 Albistur, 39-K
 ☎ 948627542 • **LESAKA**

Mannel Zamorano
 Bernizadurak
 Pintura
 orohar
 Bittiria, 37 • **LESAKA** • ☎ 989 042 671

EROSLE
LESAKA
 Kalitate-prezio arteko orekarik hobereana
Frexkuena zugandik hurbilago
 Bittiria, 67 • © 948637264

koxkonta
SAGARDOTEGIA ZABALIK

Paregabeko idi-txuletak
 Deitu erreserbak egiteko
 Foto Goiko
 Otsango auzoa, Tfnoak: 948627503/948627519 • **LESAKA**

OBRA PROIEKTUAK
 ✓ Etxe berriak eraikitzeko
 ✓ Zaharbarritzeko kanpotik eta barnetik
 ✓ Urbanizazio proiektuak
 ✓ Obra-zuzendaritza
 Udalendako aholkularitza-zerbitzua hirigintza lanetan
BIDASOA
 arkitektura bulegoa
 Bittiria, 45 • © 948 637 503 • **LESAKA**

IGANTZI

ETBkoek "Hitzaro" programaren zati bat grabatu zuten Igantzin

Arkupeak elkarteko bazkideen bazkaria martxoaren 5ean izanen da

OSKAR TXOPERENA

"Hitzaro" ETBko programaren zati bat Igantziko Herriko etxean grabatu zuten otsailaren 6an, Jose M^a Satrustegiri egindako elkarrizketa, hain zuten ere. Berarekin solasteko aukera izan genuen, eta jakina, Nafarroako Euskararen Kontseiluarekin gertatutakoaz bere iritzia eman zigun: «Ezin genuen inolaz ere lanean horrela segitu, ez baitzuen Nafarroako Gobernuak gure iritzia deustarako kontutan hartzen».

Iñauteriak

Bertze hainbertze irudiren artean goikoak aukeratu ditugu aurten go iriñauteak ilustratzeko. Batean otsailaren 6a arratsean urteroko koa-drilak antolatutako antzerki ederraren zati bat



Obispoa pilotalekua bedeinkatzen eta haurren antzerkia eskolako iñauteri bestan

Arg.: Oskar



ikusten ahal da. Pilotalekuaren egiazko inaugurazioa joan den igandean egitekoa bazen ere, eurek pixka bat aintzindu nahi izan zuten, ez nolana hiko partiduarekin gainera: Titin III eta Goñi II.aren aurka. Aintzinetik, obispoa izan zen pilotaleku berria bedeinkatzen, argazkian ageri den bezala.

Bertzean eskolako Haur Hezkuntzakoak

ageri zaizkigu bere antzerki saioa egiten. Eskolan otsailaren 10ean egin zuten iñautetako besta.

"Arkupeak"eko bazkaria

Igantziko Arkupeak-eko bazkaria martxoaren 5ean izanen da. Joan nahi dutenek izena Nafarroako Kutxan eman beharko dute, otsailaren 28a bitartean.

Biltokitik sagardotegira

Martxoaren 20ko antolatu dute Biltokikoek sagardotegirako bisita. Astigarragako Petritegira joan gogo dute, eta animatzen denak martxoaren 12a baino lehen eman beharko du izena Biltokin bertan (bazkideek 3.000, bertzeek 3.500 pezeta). Ateratzeko hitzordua arratsaldeko 8tan izanen da.

Bea Lizardi

Aintzin horretan bertze txapel bat lortu zuten Bea Lizardi herri-tarrak Elizondon jokatutako Baztango emakume pala txapelketan. Bere lagunarekin tantu bakar batez garaitu ziztuzten iruritarrek.



Bentak
 Lore eta landareak
 Frain auzoa • © 948637826
 LESAKA

CONSTRUCCIONES MECANICAS HERRIZUN S.L.
 Ikinaria eraikuntza
 Aldaketak eta despiezea
 Intenimendu mekanikoa
 Torno, fresadorak, errektifikadorak
 Igantziko Bentak • © 948627572 • Faxa: 948637313

Txema Etxarte
 Zolen akutxilatze eta
 bernizatze profesionala
 © 948 637439 • 31700 LESAKA

BERA
 © 948631076 • BERA

KATTU
 ostatu - jatetxea
 Plater konbinatuak eta menuak
 © 948627573 • LESAKA

ATM S.A.
 AUXILIAR DE TRANSFORMADOS METALICOS, S.A.
 • Txapa mozketa eta tolestea 6 metro bitarte, neurria eta diseinuaren arabera
 • Enbalaketa elementuak eta flejeak.
 • Ate metalikoak (baskulante, korredera, gillotina...)
 • Aireadoreak (estatikoak, erregulagarriak...)
 Igantziko Bentak • © 948 637 411 • Faxa: 948 637 313

LESAKA

GRUPO ZURICH
 ASEGURU OROKORRAK
 Itzea, 4 — BERA — © 948 630763

ARANTZA

Aurtengo Korrikak gure herria omenduko du euskara bizi-bizi mantentzeagatik

Martxoaren 14an Korrika besta izanen da herrian

ELIXABET ETA GARBIÑE

AEKk antolatzen duen euskararen aldeko martxa hau dela eta, hainbat omen-
du izaten dira urtero. Aurten Arantza omenduko dute «euskara bizi bizirik mantentzeko egin duen ahaleginarengatik».

Hau dela eta, martxoaren 14an Korrika besta izanen da herrian, Korrikak berak antolatua. Hori aprobetxatuz, martxoaren 12 eta 13an eginen dira Korrika Kulturalari dagozkion ekitaldiak. Aranztar guziok omenduak izanen garenez, animatu!

Ana Larretxea Gasherbrum-ere

Bortzirietako bortz gazte berriz ere mendi altuetara begira daude. Bortz hauen artean, lau beratar eta aranztar bat, Ana Larretxea. Orain dela bi urte Perun ibili ziren eta aurten Gasherbrum-II mendia, 8.000 metro ingurukoa, igotzeko intentzioa



Ana Larretxea aranztarra, lau beratarrekin batera joanen da Gasherbrum mendira.

dute. Ekainaren erdialdean joanen dira Pakistan aldera eta hilabete terdi pasatuko dute han.

Euskal Herritarrok

Bortzirietako bertze herrietan bezala, Arantzaren ere udal hauteskunderako Euskal Herritarrok talde bat osatu nahi da. Herriko zenbait pertsonak beraien laguntza eskaini dute eta Herriko Etxerako zerrenda

bat osatzea izanen dute hurrengo afera nagusia.

Akatsak zuzentzen

Aitzineko TTIPI-TTAPAN, akats haundi bat egin genuen: Nafarroako Gobernuak Herriko Etxeari hainbat lanerako dirulaguntza emana ziola erran genuen eta ez da horrela. Eskaera egina dago baina momentuz erantzunik gabe. Gaizki errandakoak barkatu!

Arantzaren mottel, orain arte bederen

TTIPI-TTAPA telebistaren aldeko diru biltzea mottel zegoen Arantzaren hau idazterakoan. Bai bederen, berriki egin diren edo egiten ari diren bertze eskeekin konparatuz. Hala ere, komeni da jakinaraztea hemengoa dugun TTIPI-TTAPA telebista bizirik zaintzeko aranztarren laguntza ere beharrezkoa dela. Laguntza eman nahi duenak ematen ahal du oraindik ere, nahi bada dirua biltzen dabiltzan TTIPI-TTAPAKo laguntzaileei emanez edo dirua Arantzako bankuetan sartuz TTIPI-TTAPA FUNDAZIOAREN izenean.

EMAITZAK (99/02/19)

Herria	Zenbatek	Zenbat
ARANTZA	4	48.000
BERA	65	819.000
ETXALAR	59	746.000
IGANTZI	54	616.000
LESAKA	39	490.000
Denetara	221	2.719.000

ANTZUZELA S.L.

Irungo errep. - BERA - Tel. 948-631317

HARRI NATURALA

ATERATZEA eta LANTZEA

Antzinaldeak	Tximiniak
Angeluak	Erlizak
Orma antzinak	Moldurak
Leihoak	Zokaloak
Ateak	Hilarriak
Arkuak	Marrazkiak
Pilareak	

'Abundandoa' Macizoa
Zahar antzekoa Txapeatua

**ZINTARRIAK
ADOKINAK
ZOLAK**

**ALBERGIA
JATETXEA**

© 948634179
ARANTZA

**BORTZIRI
UNSION ANAIAK**
sukalderako haltzariak

ERAKUSKETA
Bereau etxea • **LESAKA**
Tel eta Faxa: 948 637 266

DROGUERIA MOLINERO

• DROGERIA • LURRINDEGIA • OPARIAK •

2.000 kolore baino gehiago lortzen ahal duen makina
10 minututan zuk nahi duzun kolorea
Profesionalentzat prezio berezia

Eztegara 19 • © 948 63 02 40 • BERA

BERTIZARANA



Narbarteko iñauterietako eta Ortzegun Gizen eguneko irudiak.



Narbarteko iñauteriak ere giro ederrean joan dira

Haurrek eta gazteek goxatzen dute gehien bat

ESTHER ARRASTIO

Narbarten haurrek eta gazteek ospatzen dituzte iñauteriak. Ortzegun Gizen egunean ilusioz beteak egoten dira haurrak. Izan ere, goizean denak mozorrotu ondotik plazan biltzen dira. Akordeolari, ira-

kasle eta gurasoekin etxez etxe ibiltzen dira, arraultzeak, txistorra eta dirua biltzen. Herriko Ostatuan bazkaldu ondotik, arratsaldean jo-kuak izaten dituzte eta gero, berendua.

Gazteen iñauteria ere gisakoa izaten da. Goizean bildu eta etxez

etxe ibiltzen dira egun osoan. Herriko Ostatuan afaldu eta Bordatxora joaten dira denak mozorrotuta.

Aurten aski mozorro politak ikusi dira Narbarten: presoak, arabiarrak, animadorak, de-abruak, andereñoak, medikua, mexikarra...



GAZTANDEGIA

LIZUN
 Etxeko Ardi Gazta
 Petxenekoborda • Tfnoa: 948 450 862 • SUNBILLA

ETXANDI TXOKO
jatetxea
 Bazkari, afari eta gosariak
ITUREN • ☎ 948 450 491

Javier Manterola
 TEKNIKO
 INSTALATZAILEA
 iturgintza • gasa • kalefakzioa
 Tfnoa: 948 630 031 • BERA


APARAN, S. A.
 BRIKOLAIA eta ZURAK

- Melamina taulak
- Taula hidrofugoak (uretik babesteko)
- Txapaz estalitako taulak
- Entzimerak
- Ate arruntak eta sukalde mogleendakoak
- Pintura eta bernizak
- Bainurako mogleak eta osagarriak
- KIT mogleak, esku-erremintak, etab...

Tel.: 948 450 133
 948 451 541
 Faxa: 948 450 334
DONEZTEBE

FUNERARIA ZERBITZUAK
Lesaka-Donztebe


MALDAERREKA, S.L.

24 ordutako zerbitzua
 Iruñea-Donostia-Irungo ospitaletatik edozein herritara trasladoak
 Tfnoa: 948637404 • LESAKA
 Tfnoa: 948450475 • DONEZTEBE

SUNBILLA

Kultur Asteburua izanen da aurten ere

Ulibeltzak elkartearen batzar nagusia larunbat honetan burutuko da



1989-90 ikasturteko eskolako neska-mutikoak

JAIONE ETA ALBA

Antzakaitz kultur taldea sortuz geroztik, urtero Kultur Asteburua egin da Sunbillan eta aurtengoan ere antolatketan hasiak dira. Herriko Etxea, ostatuak, Ulibeltzak elkarte eta eskolari deialdia egin ondoren zenbait erabaki hartu eta aurreprograma bat egin da. Oraindik deus zehaztu gabe badago ere, adin guzietako jendeak parte hartzeko moduko ekitaldiak izanen dira.

Ulibeltzak elkartearen batzar nagusia

Larunbat honetan, otsailak 27, arratsaldeko 6,30etan Ulibeltzak elkartearen batzar nagusira deituak daude. Gai hauek izanen dituzte aztergai: Azken aktaren irakurketa; zuzendaritza batzorde berriaren aukeraketa; eskaerak eta galderak.

Ihauterietako oroigarriak

Ihauterietako argazkiak, Mena nahiz Zalduarenak, Ulibeltzak elkartearen daude eskaera egin nahi duenarentzat. TTAPI-TTAPA TELEBISTAK ateratako bideoa, berriz, Itturburu eta Herriko ostatuan.

Sagardotegira busa

Larunbat honetan, otsailak 27, sagardotegira joateko autobusa antolatu da. Izen emateko Fonda eta Itturburu ostatueta joan.



FI Z ITEZ GU EKIN

. .C. GU E
L N-E EMU

Uzturteko Kultur Asteburua izanen da aurten ere. Uzturteko Kultur Asteburua izanen da aurten ere. Uzturteko Kultur Asteburua izanen da aurten ere.

U KEZTEK E E U T IL EN TIKM TX EN 12



MALERREKA

Ezpelurak zenbait ekitaldi prest ditu Emakumearen Egunaren inguruan

Solasaldia, antzerkia, ipuin kontalaria eta afaria izanen dira

TTIPI-TTAPA

Malerrekako Ezpelura Emakume elkarteak martxoaren 8an Emakumearen Nazioarteko Eguna burutzen dela eta, ekitaldi batzuk antolatu ditu.

Honela, datorren ortzegunean, martxoaren 4an, arratsaldeko 7etatik aitzin solasaldia izanen da Donezteben, Malerrekako Mankomunitateko bulegoetan. IPESeko ordezkari batek gazteleraz emanen duen solasaldian emakumearen egoera munduan aztertuko da, «Emakumeekin mundura aitzinera doa» izenburupean.

Martxoaren 7an, igandea, goizeko 12etan Donezteben barna kalejira izanen da trikiti-xa eta txistulariekin. Arratsaldeko 7etan Melody Sisters antzerki taldeak "Con lo puesto" antzeslana eskainiko du Doneztebeko zinemari.

Martxoaren 8an, azkenik, arratsaldeko 7etan ipuin kontalaria ariko da euskaraz Ma-



Emakumearen egoera munduan aztertuko da IPESeko ordezkari batek heldu den ortzegunean emanen duen solasaldian.

Artxibokoa

lerrekako Mankomunitateko bulegoetan. 9etan afaria izanen da. Prezioa eta lekua, kartelen bidez jakinaraziko da.

Pintura tailerra Donezteben

Bertze denboraldi batez, Ester Fernandez margolariak pintura tailerra zabaldu du. Dagoeneko hamar urte bada-ramazki tailer hau es-

kaintzen eta adin guzietako berrehun lagun baino gehiago igaro dira bertatik. Tailerra elizaren aitzinean dago, Parrokia karrikako lehendabiziko zembakian eta teknika eta materiale ezberdinak lantzen ahal dira: lapitza, tinta, olio, marrazkia, pintura.

Ester Fernandez Casas margolariak arrasongi hasi du urtea, Iru-

ñean "Bidasoako bazterrak" izeneko erakusketa zabaldu baitu urte hasieran. Aurten bere lanak etxetik hurbilago ikusteko aukera ere izanen dugu seguraski.

Kuartela itxi dute

Behin betiko itxi da Doneztebeko herrigunearen erdian -Nafarroan gelditzen zen barrak- zegoen guardia-zibilaren kuartela.

Iturengo Herriko Ostatuan kontzertua larunbat honetan

Larunbat honetan, otsailaren 27an, gaueko 10,30etatik aitzinera rock kontzertua eskainiko du Iruñeko Maraña taldeak Iturengo Herriko Ostatuan. Taldeko musikariek esperientzia omen dute musikaren munduan, bertze zenbait taldetan arituak baitira.

Isidro Bazterrika saritua

Zerrikumeen produkzioaren kudeaketan Nafarroako abeltzainen ITGk emandako saria jaso du Isidro Bazterrika ittundarrak. Espainian burutzen den Porc D'Or lehiaketan ere izendapena jaso zuen, 30 zerrama baino guttiagoko esplotazioen kategorian.

Urrozko zenbait bideren zolaberritze lanetarako lehiaketa deia


Urrozko Maiteneko-borda, Aizpea eta Berraburua-Txispekoborda bideak zolaberritzeko lanak egiteko lehiaketa publikoa egin du Urrozko Udalak. Jakina denez, lan hau Hirurteko Azpiegitura Planean sartu zuen Nafarroako Gobernuak. Hasierako aurrekontua 58.489.201 pezetakoa da (BEZ barne) eta proposamenak, martxoaren 2ko eguerdia baino lehen aurkeztu behar dira Urrozko udal bulegoetan.



AMEZTIA Jatetxea - Hostala

Espezialitatea euskal sukaldaritzan eta pintxoetan

Tfnoa: 948 450 028 • DONEZTEBE



BELARRA OSTATUA - JATETXEA

Ameztiak karrika • DONEZTEBE
Tfnoa: 948 450 306

E D A R I A K

Bidasoa K/62 - 31700 ULLER (Nafarroa)
Tel. - Fax: 948. 63 10 27

GOIZUETA

Lizarra-Garaziko akordioaren berri emanen da herrian

Martxoaren 6an, arratsaldeko 6etan, izanen da ekitaldia Umore Ona elkartearen

ESTEBAN AROZENA

Udalak, Umore Ona elkarteak, Gazte Asanbladak eta Guraso Elkarteak luzatuko dute hurrengo martxoaren 6an Lizarra-Garaziko akordioaren berri emateko eginen den batzarerako deialdia.

Arratsaldeko 6etatik aurrera Umore Onaren egoitzan burutuko den bilkuran, akordioarekiko atxikimendua eskatuko zaie herritarrei. Batzorde iraunkorreko kideren bat ere bertan izanen omen da Lizarran eta Garazin sinatutako ari buruzko informazioa eman ahal izateko.

Pilota eskolak

Leitza eta Goizueta-ko pilota eskolek ospa-

tzen dituzten adiskidetasun egunak tradizionalak egiten ari dira da goeneko. Aurten ere bi egun paregabe igaro berriak dituzte bi herrietako iñoteak aprobe txatuz. Aurrena partidua eta gero, pilotari, irakasle eta gurasoak elkarturik, bazkaria.

21 mutil kozkorrek osatzen dute herriko pilota eskola Angel Salaberriaren gidaritzapean. Bina orduko bi entrenamendu egiten dituzte astean.

Bide moldatzeak

Alkasoaldeko bide guzia eta Aitasemegi-koaren puska bat asfaltatuko ditu Udalak hurrengo asteetan. Zortzi milioitik gora gastatuko dira eginkizun ho-

netan. Jakina den bezala, Antoka eta Alozarta baserrietakoak ere ormi-goitzen ari dira, bi hauek Hirurteko Planaren barrenean. Honetaz gain, baserrietako bideak konpontzen dituzten herritarrei %30eko subentzioak ematen ari da Udala. Herrian erroldatuta egotea beharrezkoa da laguntza hori eskuratu ahal izateko.

Iñoteak

Iñotetako moztarren taldean emakumeak sartu zirenean istiluak izan ziren orain dela lau-pabost urte. Aurten beste pauso bat eman da normalizazioaren bide-



Duela urte batzuetako argazki honetan ez bezala, aurtengoan neskek ere azaldu dira makila zeramaten moztarren artean.
Artxibokoa

an, historian lehen aldiz bi emakume –Arri-txu Apezetxea eta Miren Huizi– baitzeuden zahidantzan makila zeramaten hamasei moztarren artean. Aipatzekoa da gainera, astear-te-iñote arratsaldean moztarro talde osoa –50etik gora– herriko plazan elkartu zela Juan

Mielen askatasuna aldarrikatzen zuen pankartaren atzean.

Notarioaren ordutegi berria

Hilero Lekunberritik etortzen den notarioak, hemendik aurrera kontsulta zaharrean hartuko du jendea hilaren azkeneko asteartean.

ARESO

Sokatira taldea nagusi Euskadiko txapelketan

Orain arte jokaturako txapel guziak eskuratu ditu

JUANA M^a SAIZAR

Euskadiko txapelketan bi txapel herrira etorri dira, 560 eta 640 kilotan. Aipatzekoa Aresoko taldeko mutilekin Josu Etxezarretak egiten duen lana. Itxarropenez eta aurten

gerra handia emateko asmoarekin joan omen ziren 560 kiloko finalera, bainan ezusteko txapela lortu dute, Etxezarretaren ustez. 640 kilokoan itxaropen gehiago zituzten.

Lur gaineko sokatira ospe haundiagokoa

da eta aukera hori ere aipatu izan omen dute behin baino gehiagotan taldean, baina udaran entrenatzeko zailtasun gehiago dituzte. Beharbada, aurrerago lur gainean ikusteko aukera emango digu Aresoko taldeak.



Sokatira taldea, jaun eta jabe
Egunkaria

Tresna zaharrak

Zaborrontzira bota ez daitezken tresna zaharrak hilaren azkeneko ostiralean bilduko dira. Ontziaren ondoan utzi behar dira.

Okerrak zuzenduz

Aurreko alean, iñauterietan karroza ateratzen zen lehen aldia zela aipatu genuen eta hori ez da horrela. Antzerki bai, lehen aldiz egin zen.

Baso-lanengatik dirulaguntzak eskatzeko informazioa emanen da

Foresna-Zurgaiako teknikariak egonen dira egunotan

JOSEBA AZPIROZ

Nafarroako Gobernuak baso-lanengatik dirulaguntzak eman ohi ditu. Hauek lortzeko aurkeztu beharreko eskaera, agiri, eta abarretaz informazioa eskaintzeko, Foresna-Zurgai taldeak bilera bat presatu du, otsailaren 24ean, arratsaldeko 7etan, Udaletxean. Horretaz gain, martxoaren 3an, goizeko 9etatik aurrera, Udaletxean egonen dira eskaerak betetzen laguntzeko eta Nafarroako Gobernuan aurkezteko. Aurten eta datorren urtean egin beharreko baso-lanen dirulaguntza eskaerak, aurten aurkeztu behar dira.

Oihan enkantea

Urdolatxiki inguruan dauden 952 pinu eta haritz amerikano ondo ateratzeko enkante deia egin du Udalak. 754 metro kubiko zur emanen dute eta hasierako prezioa 4.602.000 pezetakoa da. Proposamenak martxoaren 5eko eguerdia baino lehen aurkez-



Aurtengo eta datorren urterako baso-lanen dirulaguntza eskaerak aurten egin behar dira.

Artxibokoa

tu behar dira. Bestalde, 1998. urtean, 45 milioi pezetako balorea duten loteak markatu ziren. Batzuk, aurreko urtean adjudikatu baziren ere, besteak aurten subastatuko dira.

Industrialdearen argiztapena

PII Landa industrialdeko argiztapen publikoaren instalazioaren obra enkante edo subasta bidez emanen du. Lanak, martxoaren 15a

baino lehen hasi behar dira eta bi hilabeteko epea dago amaitzeko. Obraren aurrekontua 6,9 milioi pezetakoa da (BEZ barne).

Proposamenak martxoaren 4ko eguerdiko hamabiak baino lehen aurkeztu behar dira.

Mendialdeko bikario berria leitzarra

Javier Azpiroz El-duaien leitzarra Mendialdeko Bikarioa izenda-

tu zuen aurreko astean Iruñeko Gotzainak. 36 urteko apaiz hau, duela hamar urte apeztu zen. Duela hiru urtetik Elizondoko abadea da eta aurretik Etxarri-Aranatz, Iturmendi eta Bakaikun egona da.

Igandeko zinea astero

Aurreko astean, igandean arratsaldez eskaintzen ziren pelikulak hamabostetik ematea erabaki zela agertzen ge-

flash

❖ **Traktoreen ITVa**
Traktore eta nekazal ibilgailuen azterketa teknikoak otsailaren 2an egin zen. Zure traktorea ITVra ez bazenuen ekar-terik izan, jakin ezazu 30 nekazal ibilgailu bilduz gero, berriaz etortzeko prest agertu zirela. Zerrenda osatzeko, eman zure izena Udaletxean.

❖ **Korrika herritik**
Martxoaren 23an, asteartea, arratsaldeko 8,45ak aldera, Korrika herritik igaroko da. Uitzit alde-rik etorri eta Ezkurra aldera joko du. Kilometrorik erosi nahi izanez gero, eus-kara teknikariarekin harremanetan jarri behar duzu (948 610636 telefonoa).

❖ **Nortasun Agiria**
berritzera etortzen diren funtzionarioak, hemendik aurrera, bi hilabetetik behin etorriko dira. Beraz, martxoan ez dira etorriko eta apirilean berriaz, 21ean.

nuenean, arratsaldeko 4,30etako emanaldiaz ari ginen, eta ez 7takoaz. Azkeneko hau, igandero mantentzen da.

ERREKA
sagardotegia
Eguneko menua
ErrekaAuzoa • © 948 510625 • Mug.:619 620282
LEITZA (Autobiako irteeraren ondoan gaude)

ZURGINDEGIA



KONEKTATU internetera

TTIPI TXARTELA izateagatik INTERNETera konektatzeko aukera ezin hobea duzu. JALGI zerbitzariarekin urtebeteko konexioa gehi posta elektronikoko helbidea 10.000 Ptatan. Aukera hau galdu nahi ez baduzu, deitu:

Urtebeteko konexioa gehi
posta elektronikoko helbidea:

10.000 Pta. + BEZ

(+34) 948 631188

BAZTAN

Oronozko saihebidetan tunela egitea onartu du Nafarroako Gobernuak

Nafarroako Gobernuak Oronozko saihebidetaren proiektu berri bat idatziko duela hitz eman du, otsailaren 15ean egindako batzarrean. Berrikuntza nagusia, 300 metroko tunela izanen da. Zuloa, kanposainduaren gibelaldetik joanen da eta Askape ingurura, Orabidearako bidegurutzearen ondoan aterako da.

Gisa honetara, Herri-lan Departamenduak Balleko Udalak, Oronozko bizilagunen eskariz, egindako alegazioak onartu ditu.

Florentino Goñi, Oronozko alkateak zioenez, oraindik ez du jakinarazpen ofizialik jasotako baina azken urteotako berririk pozgarriena da bizilagun gehienentzat. «*Gauza aunitz egin ditugu: mediku kontsulta, eskola, baina hau berri onenetakoa da*».

Hasierako proiektuak, Oronozko gelditzen diren belagi bakan onenak hartzen zituen eta Florentinoren ustez, «*horiek ongi gorde behar dira, bai abeltzaintzengatik, baita turistentatik ere*».

Anastasio Nagore da Elizondoko alkate berria

Herriko aferetan gazteen partehartzea eskatu du

A.A.

Azkenean bai. Hiru batzarre egin behar izan badira ere, Elizondoko badu hogeigarren mende bukaerarako alkatea, Anastasio Nagorek hartu baitu ardura. Anastasio duela 42 urte jaio zen Iturenen eta azkeneko hamazazpitan Elizondon bizi da. Hiru semeren aita da.

Elizondoko alkate berriaren lehendabiziko helburua Balleko Etxeak herriari ematen dion dirua haunditzea da. «*Gan den urtean 1.080.000 pezeta eman zituzten. Hori, 2.800 biztanle dituen herri bantentzat irri egiteko modukoa da. Gero Elizondok dituen arazoak ikusi eta ahal den neurrian moldatzen saiatuko gara*». Bere ustez, etxetz dirua eskatzen ibili beharra izan da hainxuxen, hiru batzarretan bertze alkategairik ez agertzearen arrazoi nagusia: «*Lehenko alkateak aipatu didanez, hori da gogorrena. Azkenean eskale batzarelak iruditzen zaizu eta*



Anastasio Nagorek XX. eta XXI. mendeak lotuko ditu Elizondoko alkate gisa

ustekabeen ate aunitz iten zaizkizu, gainera». Kargu berriari errespeto handia dioen arren, hasierako eguneko beldurra uxatu du Nagorek. «*Azken finean, denok dakigu gure eginbeharrak mugatuak direla: bestak, inauteriak eta feriak antolatu eta gau-*

za guti gehiago. Eskutan daukagun diruak ez du gehiagorako ematen». Kargodunen taldean hiru palau gazte sartu nahi ditu alkate berriak: «*Ea horrela gazte koadrilak herriko lanean animatzen diren. Bestak eskatzea ez da aski, lana ere egin behar da*».

flash

Korrika-gaupasa

Larunbat honetan, otsailak 27, Baztango AEKk antolatutako kontzertua izanen da Erratzuko pilotalekuan, gaueko 12etatik aitzinera. Korrika kulturalaren barneko ekitaldi honetan, Pottoka, Pilt, Leihotikan eta Sustraiataldeek hartuko dute parte. Sarrera 1.000 pezetakoa izanen da.

Porc D'or lehiaketa

Espainiako zerrama onenak saritzen duen lehiaketa honetan Baztango abeltzainek emaitza onak lortu dituzte. 30 zerrama baino guttiagoko baserrien kategorian, Azpilkuetako Florentino Dainziartek bigarren saria jaso zuen. Arraiozko Juan Jose Alzuarere ere izendatu zuten. 31 eta 150 zerrama bitarteko baserrietan Elizondoko Begoña Goñik izendapena jaso zuen. Bizirik jaioetako zerrikumeek dago kienez, Elizondoko Manuel Ormart eta Begoña Goñi eta Lekarozko Sagrario Arrupeak izendapena jaso zituzten.

ARROPA DENDA

Gazteendako era guzietako arropa
Lanerako arropa

BAZTAN OPTIKA

ORDUTEGI BERRIA: Egunero
 goizeko 9,30etatik 1,30etara eta arratsaldean, 4,45etatik 7,45etara
 Santiago, 33 (Baztan ostatuaren aitzinean) • ELIZONDO

IPINGI
 ZATOZ ETA IKUSI
 Santiago 88, Tfnoa: 580939
 ELIZONDO
UDABERRIKO TELAK ETA ARROPAK
ESKULANERAKO MATERIALAK

LARRALDEA

SAGARDOTEGIA
 Asteartetik ortzirala Betatik aitzinerat
 Larunbata eta besta egunetan zabaik
 © 948 452121 • LEKAROZ

BAZTAN

Bi udal lanposturen deialdiaren aurkako errekurtsioa ezarri du LABek

Euskara maila nahikoa ez dela eskatzen uste du sindikatuak

TTIPI-TTAPA

Baztango Balleko Etxeak Kultur eta kirol koordinatzaile lanpostuak betetzeko egindako lehiaketa deialdiari errekurtsioa ezarri dio LAB sindikatuak. Nafarroako Auzitegi Administrazioari aurkeztutako idatziak dienez, euskarari dagokionez lanpostu deialdian Hizkuntz Eskolako laugarren maila bertzerik ez da eskatzen. LABen ustez, ordea, «*Hizkuntz Eskola Ofizial baten agiria nahikoa izateko, berau Gaitasun agiri bat izan behar da, hau da, bostgarren maila gainditu ondoren ematen dena*». Deialdian, aldiz, gaitasun zertifikatua eskatu beharrean, laugarren maila gainditua izatea nahikoa dela azaltzen da, «*Erregelamenduan xedatzen dena urratuz*» sindikatuaren arabera. Hori dela eta, Baztan Balleko Kultur eta Kirol koordinatzaile lanpostuak hornitzeko deialdian aurkako errekurtsioa sartu du LABek.



Erratzuko eskolakoak Auzara

Gan den hilabetean Erratzuko eskolako guratso elkarteak antolatutako mendi ibilaldian Auzara gan ziren. Argazkia, kasko-kaskoan atera zuten, molnolitoaren inguruan.

Argazkia: Xabier Ospital

Almandozko Iturriozko erreka berreskuratuko du Ingurugiro Departamenduak

Almandozko Iturriozko erreka, Marmoles Baztan lantegiaren aitzinetik pasatzen dena, berreskuratuko da.

Nafarroako Gobernuo Ingurugiro Departamenduak, hiru milioi pezetako aurrekontua izanen duen proiektua kontratatuzko espedien-

tea zabaldu du. Lehiaketa bidez emanen da lana. Izan ere, hondakin zikinek kasik oso osorik ixten dute erreka pasabidea. Pasatzen den ura, berriz, zikina eta kutsatua dago. Ura, Oronozko piszifaktoriari igarotzen da eta amoarrain kumeen he-

riotza eragiten du. Horregatik, erreka berreskuratzea beharrezkoa da Ingurugiro Departamenduen ustez.

Erreka garbitu eta lehengo moduan uzteaz gain, inguru horretan dagoen zaborteja ere moldatuko da proiektu beraren barrenean.

Portuenaia

Juanito Meoki zinegotzia hil da

Juanito Meoki Maia, Irurritako komertziantea ezaguna, otsailaren 9an hil zen, 59 urte zituela, eritasun luze baten ondorioz. Legealdi honetan Baztango Balleko Udalean zinegotzia zen Juanito Meoki, berak sortutako Agrupacion Baztandarra taldeko ordezkari bakarra, hain zuzen. Aitzinetik, Irurritako alkate izan zen lau urtez eta 1995ean, zinegotzi aukeratu zutenean utzi behar izan zuen kargu hori. Komertziantea zen (oinetakoak, txatarra bilketa...) eta bere lanbideaz arras ezaguna zen. Aizkolari aunitzek jaso dute bere laguntza eta trukean bere merkatal-izena eraman dute kamisetan. Bere publizitate kanpainak ere famatuak izan ziren.



Juanito MEOKI

ZUBIRIA
MINDEGIAK

- Etxeak apaintzeko landareak
- Baso landareak
- Bertako frutondoak

ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 948 452032 (bulegoan) • 948 592034 (etxean)
Faxa: 948 581274

Eskisaroi
jatetxea

Jaime Urrutia, ☎ 948 580 013
ELIZONDO

La Asturiana
ostatu • jatetxea

Tfnoa: 948 58 04 63
Santiago 51, ELIZONDO

ARMUA
Jatetxea

Zugarramurdiok karretera 3. Km
© 948 599 131 - URDAZUBI

OSTATU - JATETXEA
Jaki Tipikoak • Etxeko Giroa

Iturriotz Auzoa • © 592043 • ORONOZ-MUGAIRI

SARA

Izarra errugbi taldea kostaldeko erdi finalerako postuaren bila

Igandean jokatu du Lit eta Mixeko taldearen aurka

ANA MARI, MARTINE ETA FREDERICK

Otsailaren 28an, igandearekin, Saran herriko Izarra errugbi taldeak, Lit eta Mixeko Landesetako taldearen aurka arituko da arratsaldeko 2etan. Partida honen ondotik herriko basurdeek jakinen dute kostaldeko lehiari erdi finalerako postua lortu duten edo lehiatutako kanporatuak diren. Orduan, ez ahanzi egun hori eta zoazte herriko taldea sustatzera!

Mus txapelketa

Bertzalde, aurtenean, Sarako Izarra rugbi taldeak mus txapelketa antolatu zuen iragan otsailaren 6an, Omordia gelan. Denetan berrogoi bikote baldin baziren ere, 130 lagunendako afaria prestatu behar izan dute Ramuntxo Etxebestek, Christophe Quitticek eta Jeannot Mundutegik. Irabazleak, txapelketa nagusian: Beñat Saint-Martin eta Tote Jauregiberri. Kontsolagarriak: Jérôme Pradère eta Frédéric Barnetxe. Kontsolagarri txikiak: Alain Loustau-nau eta Pascal Etxegarai.

Sarako Gau Eskola Josta Blai irrati jokoan

Joan den urtean bezala, AEKK eta Gure Irratiak antolatutako Josta Blai irrati jokoak hastekotan da. Otsailaren 18tik ekainaren 3a arte, Lapurdiko Gau Eskola guztiak



Itxura berria betiko pilota plazarentzat

Herriko plazan lanean dabilta aspaldian. Pilota plaza moldatua dago eta orai Herriko Etxearen aitzinean ari dira. Goitiko argazkian mende haserako irudia ikusten dugu. Orai zoin itxura hartuko du?



suharki lehiatuko dira Gure Irratiko estudioetan. Saratarrek martxoaren 11n dute lehen hitzordua Hazparne-Beskoitze-Bardoze tal-

dearen kontra. Iaz, euskara ikasten ari diren saratarrek finaleraino iritsi ziren. Ea aurtenean bertze horrenbertze egiten duten!

Emankizuna ortzegunetan gaueko 8etarik 9ak arte eta larunbat goizetan izanen da entzungai 106.6 FM frekuentzian.

XARETA

Aurrehistoria ikasteko bidai zientifikoa antolatu da Bordelera martxoaren 12an

Xaretaren ikastaldiaren barnean, Bordelera bidai zientifikoa antolatua izan da martxoaren 12an. Gaia, prehistoria edo aurrehistoria eta protohistoria izanen da eta bidaiari izanen da eta Xaretako biztanleentzat.

Abiada Sarako plazatik izanen da, goizeko 7etan. Bordelen, Akitaniako museoari bisita egin ondotik bazkaria izanen da. Arratsaldean, gizakia-aren aldakuntzari buruzko erakusketa bisitatuko dute bidaiariak.

Sarako plazara itzule-rra arratseko 9ak aldera eginen da. Izenak heldu den asteazkena, martxoaren 3a, aitzin eman behar dira edo Sarako Herriko Etxean (05 59 54 20 28 telefona) edo Sarako lezetan (05 59 54 21).

flash

Kultur Hamabostaldia sagarnotegira

Azkaingo Altxa Lili, Berako Gure Txokoa, Etxalarko Altxa eta Sarako Gazte-txeak, hau da, Kultur Hamabostaldiko elkarte antolatzaileek iaz bezala sagarnotegi batera ateraldia antolatu dute martxoaren 13an. Afari hau denei zabaldua izanez, galdetua da herri hauekako antolatzaileeri hurbiltzera bere izena emateko.

Jende erroldaketa

Heldu den martxoaren 8tik apirilaren 3a arte 33. jende erroldaketa egiten da frantses estatu guzian. Gure etxeratik etorriko direneri ongi etorria egitea eta nolaz ez, erantzun zuzenak ematea galdetua da!

Rock kontzertua

Martxoaren 5ean, ortziralarekin, rock kontzertu bat izanen dugu Omordia, Korrika Kulturalaren kari. Bertzeak bertze, lehen diska atara berri duen Donostiako Naun taldea ari-tuko da.



LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura Orokorrak

Bera
© 948630735

EZKONTZAK

M^a Luisa Sorozabal Arretxea eta **Angel Mariezkurrena Deskarga**, Sunbilla eta Eratsungoa, otsailaren 6an.

JAIOTZAK

Iñaki Zestau Barriola, Leitzakoa, otsailaren 7an.

Ainara Sanchez Lizeaga, Leitzakoa, otsailaren 12an.

Maddi Etxegarai Elgorriaga, Berakoa, urtarrilaren 31n.

Amaia Sarratea Urrutia, Zigakoa, otsailaren 7an.

Ander Zelaieta Gamio, Elizondokoa, otsailaren 7an.

Beñat Iturburua Barberena, Erratzukoa, otsailaren 10ean.

Eneko Arribilliaga, Sarakoa, otsailaren 1ean.

HERIOTZAK

Juan Meoki Maia, Iruritaakoa, otsailaren 9an, 59 urte.

Maria Albistur Maia, Berakoa, urtarrilaren 23an, 81 urte.

Juan Telletxea Irazabal, Berakoa, otsailaren 11n, 52 urte.

Pedro M^a Goñi Aranburu, Lekarozkoa, otsailaren 5ean, 72 urte.

Agustina Gonzalez Garcia, Elizondon, otsailaren 6an, 83 urte.

Jesusa Goikoetxea Erburu, Elizondon, otsailaren 11n, 86 urte.

Alberta Etxenike Iribarren, Azpilkuetakoa, otsailaren 11n, 81 urte.

Micaela Mendiburu Gortari, Lekarozkoa, otsailaren 12an, 92 urte.

Julian Goñi Iturregi, Elizondokoa, otsailaren 13an, 68 urte.

Juliana Rota Loperena, Doneztebekoa, otsailaren 16an, 86 urte.

Peio Fagoaga Mutuberria, Arantzakoa, otsailaren 2an, 47 urte.

Jose Antonio Olaizola Olagarai, Urdazubikoa, otsailaren 14ean, 47 urte.

Zenona Iparragirre Zubieta, Etxalarkoa, otsailaren 10ean, 87 urte.

ZORIONAK!

Oparia ematen lehenak izan nahi dugu



Haurtxoa sortu eta etorri Iruñeko Kutxara berehala. Aldatzeko saskitxo hau, haurraren garbitasunerako produktuekin betea, ematen dizugu.

Ez ahantzi familiaren liburuxka!

IRUÑEKO KUTXARA

Kulturkari

Inprenta lanak egiten ditugu

- Kartelak
- Boletokak
- Faktura taloiak
- Bisita txartelak
- Aldizkariak
- ...

Behar duzuna momentu batean egiten dizugu; zure gustora diseinatu, inprenta desberdinekin preziorik hoberena negoziatu eta listo!
Deitu lasai, eskatu aurrekontua eta ikusiko duzue!

☎ 948631188

Baztanen...



LOREDENDA • GARDEN CENTER

ESTHER FUNERARIA

Hilkutzak • Hilautoak • Eskelak • Dokumentazioak • Beztitzeak, etab...

Aritzondo, Bergara auzoa • Tfnoa: 948580971 • **ARIZKUN**
Errepide Nagusia • Tfnoa: 948592200 • **NARBARTE**
Jaime Urrutia 39 • Tfnoa: 948580668 • **ELIZONDO**

24 orduko zerbitzua

Eta Iruñean...



IRACHE TANATORIOA

Iratxe Monastegia, 60
Tfnoa: 26 09 54

ttipi-ttapa internet

Internet: jalgi.com/topagunea/ttapi-ttapa
E-mail: ttapi-ttapa@topagunea.jalgi.com



Ez zaitugu inoiz ahaztuko Urdazubiko

Jose Antonio OLAIZOLA OLAGARAI

Jaungoikoak eraman zintuen 1999ko otsailaren 14ean, 47 urterekin. Bere gurasoak Fermin Olaizola eta Asuncion Olagarai; emaztea Teresita Bidart; alabak Silvia eta Marina.

*Argi bat itzali da hemen lurrean
berri bat biztu da han zeru ederrean
gure oroimenean izanen zara betiko
ez agurrik ez adiorik, gero arte baizik*

Jose Antonio

Alizia Olaizola




❖ **Euskadiko Kros txapelketa**

Otsailaren 7an jokatu zen Ezkio-Itxason Euskadiko kros txapelketa eta eskualdeko korrikalariak maila polita erakutsi zuten. Gizonzkoetan, Beste Iruña taldeko Antonio Bru beratarra zortzigarren sartu zen eta Scania taldeko Rafa Maritxalar lesakarra hamabigarren. Emakumezkoen artean, Beste Iruña taldean ari den Maika Ariztegi ittundarra seigarrena izan zen eta taldeka lehendabizikoa izan zen Iruñeko taldea. Halere, lorpenik haundiena Scania taldeko Amaia Lujanbio goizuetarrak erdietsi zuen, jubenil mailan bera izan baitzen Euskadiko txapel-duna.

❖ **Futbolari txinarrak Lekarozen**

Txinako Beijing Guoan futbol taldea aurrendenboraldia prestatzen ari da Lekarozko aterpean. Hiru astez, martxoaren 6a arte, egon behar dute bertan eta dagoeneko Osasuna taldearen kontra jokatu dute Sadarren. Txinarrak Erreala eta Athleticen aurka jokatzeko asmoa ere badute. Pekingo Beijing Guoan Txinako 1. mailan ari da eta ligarik eskuratu ez badu ere 1996 eta 1997 bere herrialdeko kopa irabazi zuen eta iaz, Asiako Kopan hirugarren izan zen.



Aresoko 560 kiloko taldeak errex irabazi zuen Urrestillako finala, tiraldi guziak bereganatuz. Arg.: Gara

Aresok irabazi ditu 560 eta 640 kiloko Euskal Herriko txapelak

- 680 kilokoa ere ia eskura zuten hau idazterakoan
- Jexux Etxezarretaren mutilek nagusitasun haundia erakutsi dute

Aresoko taldeak Euskal Herriko goma gaineko sokatira txapelketa lehen bi txapelak eskuratu zituen otsailaren 13 eta 14an.

Lehendabizikoa 560 kiloko saioan irabazi zuen Urrestillan eta bigarrena 640 kilokoan Erandion. Hau leitu orduko, hirugarren bat ere izanen dute buruan aresoarrek seguraski. 680 kilokoa ligaska moduan jokatzeko ari da eta aresoarrek aurretik ziren jardunaldi bakar baten faltan.

Pisu arinenean argi eta garbi nagusitu ziren aresoarrek Urrestillan, finaleko tiraldi guziak irabaziz. Abadiño izan zen aurre egin zezaiokeen talde bakarra, bai-

na Jexux Etxezarretaren mutilek bizkaitarren aurkako bi tiraldia aisa eraman zituzten, zortzikote honekin: Mielanjel Sukuntza, Joxe Otermin, Boni Etxetxikia, Mikel Arraiago, Joxemiel Artola, Mikel Barandiaran, Txomin Artola eta Javier Otermin. Lesakako Beti Gazte taldeko mutilek laugarren postua erdietsi zuten. Azken sailkapena honelaxe gelditu zen: Areso txapeldun 15 punturekin, Abadiño 12, Urrestillak 9, Beti Gaztek 6, Gaztedik 3 eta Goierrik 0 puntu.

640 KILOKOAN LAN GEHIAGO

Erandion lan gehiago egin behar izan zuen

Aresok bigarren txapela, 640 kilokoa, lortzeko. Urrestillaren kontra lehen tiraldia galdu zuen eta bigarrena eta kitarakoa irabazi. Abadiñoekin ere lehen tiraldia galdu zuten aresoarrek, nahiz eta ordurako txapela eskuratua zuten. Hauei ere bigarrena eta kitarakoa irabazi egin zizkieten Aresokoek. 560ko taldeekin konparatuz, hiru lagun aldatu zituen Etxezarretak 640ko finalean: Patxi Baraibar, Karlos Zabaleta eta Juan Mari Izeta aritu ziren, Joxemiel eta Txomin Artola eta Mikel Baribarren orde. Lesakarrak laugarrenak izan ziren lehiaketa honetan ere. Azkeneko sailka-

pena honela gelditu zen: Areso txapeldun 13 punturekin, Gaztedik 10, Urrestillak 9, Beti Gaztek 7, Abadiño 6 eta Goierrik ez zuen punturik lortu.

Jexux Etxezarreta entrenatzaileak komunikabideei azalduakoren arabera, ez zuten bi txapel hauek lortzea pentsatzen. «Horrelakorik pentsatzea zaila da, itxaropena egoten da, baina berdintasun handia nabari zen. Urrestillan uste baino errezago irabazi genuen, ikus zitekeen besteak baino hobek girela eta Erandiorako esperantzak hartu genuen. Bezperan baino zailago izan genuen, baina ongi ibili ginen».

AGENDA EGUNEZ EGUN

EMAKUMEAREN EGUNA

BERA

► Martxoaren 6an

Erakusketa Kultur Etxean. Goizeko 11,30etatik 1,30etara eta arratsaldeko 6etatik 8etara.

► Martxoaren 7an

Antzerkia Kultur Etxean. "Lección de orgasmo". Arratsaldeko 7,30etan.

► Martxoaren 8an

Afaria Zalain Jatetxean. 2.000 pta. Izena emateko 948 631 106.

MALERREKA

► Martxoaren 4an

Emakumearen egoera munduan IPESko kide batek solasaldia emanen du.

► Martxoaren 7an

Antzerkia Melody Sisters-ek "Con lo puesto" antzeztuko dute.

► Martxoaren 8an

Ipuin kontalaria eta afaria (ikus 18. orr.).

KONTZERTUAK

ERRATZU

► Otsailaren 27an

Baztango AEKk antolatutako duen kontzertuan Pottoka, PiLT, Leihotikan eta Sustraira taldeek joko dute. 1.000 pta. Arratseko 12etan.

LESAKA

► Otsailaren 27an

Zein eta Petti. Atxaspi ostatuan. Arratseko 10,30etan.

SARA

► Martxoaren 5ean

Omordia salan, Naun. Korrika kulturala.

TELEBISTAKO TXOKOA

ttipi-ttapa telebista

	ASTELEHENA	ASTEARTEA	ASTEAZKENA	ORTZEGUNA	ORTZIRALA
13:00	Herriz-herri (errep.)	Berriak (errep.) Jokoa Solas	Berriak (errep.)	Berriak (errep.) Bidegurutzean	Berriak (errep.)
21:00	Berriak	Berriak	Berriak	Berriak	Herriz-herri
21:30	Jokoa Solas		Bidegurutzean		Herriz-herri



IÑAUTERIAK

ITUREN • AURTITZ • ZUBIETA • SUNBILLA

Barren-barreneraino iñauteri giroan sartuak egondu gara orain akitzen ari den hilabete honetan. Milaka irudi xeble hartu ditugu han eta hemen gure kamarakin. Orain, guzi hoiek txukun-txukun moldatu, musika paratu eta bi bideo hauek atera ditugu zuentzako.

Ituren, Aurtitz eta Zubietako iñauteri famatuak bil-tzen dira batean, bere zanpantzar eta mozorroekin. Aurtizko Ostatuan, Zubietako Herriko Ostatu eta Okindegian eta Iturengo Herriko Ostatu eta Txokon daude salgai. Bertze bideoa, berriz, Sunbillakoa, Iturburu ostatuan eta Sunbillako herriko etxean aurkituko duzu. Bideo bakotxaren prezioa 2.000 pezetakoa da.

Ez al da opari polita?

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

- **Zerrikumea** (20 kilokoa): 4.200 pta.
- **Zerri gizona** (95-100): 127 pta./kiloa.
- **Zerramak**: 45 pta./kiloa, bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

- **Aretze gizenak:**
- **Idixkoak:** Pta./kg. Kanal
Extra550
1.koa530
2.koa510
- **Urruxak:** Pta./kg. Kanal
Extra560
1.koa540
2.koa520
- Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 kg. dituzten urruxentzako.
- **Aretze tikiak** (15 egun ingurukoak):
- Nabarrak:** urruxak 16.000 eta idixkoak 32.000 Pta.
- Mestizoak:** urruxak 32.000 eta idixkoak 42.000 Pta.
- Behi zaharrak:**
Behi nabar gizona: 360 Pta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 390 Pta./Kg. Kanal.

DATU ITURRIA: EHNE-NAFARROA

Liburuak



«Ba omen zen errege bat...»

Gabriel Janer Manila
ELKARLANEAN

Errege guztiek ez dute errege izan nahi. Istorio honetakoak behintzat ez du errege izan nahi. Preso daukate, eta libre eta zori-ontsu bizi nahi du berak. Hasieran ezinezkoa dirudi, baina, azkenean, ekinaren ekinez eta gorabehera askoren ostean, lortu egingo du.

ELKARLANEANEKO xaguxar sailaren barrenean argitaratu dute 100 orriko liburuxka hau. Ga-

briel Janer Manila Mallorcakoa da, irlako herri txiki batean jaio zen 1940an. Mallorcako Unibertsitateko irakaslea da eta liburu asko idatzi ditu, tartean literaturari eta olerkigintzari buruzkoak ere bai. Bere liburu guzti-guzti-ek irudimen handia eta sentiberatasun aparta erakusten dute. Euskarara itzulpena egin duena Nerea Atxega izan da.

AIZU!

Gida 99: behar dituzun telefono guztiak eskura

TTIPI-TTAPAREN ale honekin batera, eskualde osoko merkatal-etxe, lantegi eta gainerako zerbitzuen berri ematen duen «Telefonoen Gida 99» liburuxka banatu dugu. Liburuxka hortan sartuak daude Baztan, Bortziriak, Malarreka, Urdazuri eta Leitza aldeko zerbitzu guztiaren telefono zenbakiak, beraz, zure telefonoren ondoan altxatzen baduzu eskura izanen dituzu urte osoan.

TTIPI-TTAPAREN asmoa, dauden zerbitzu guztiak biltzea izan da, baina banaka batzuk euren izena ez sartzeko eskatu dute, eta beste batzuk, beharbada, gure erruz gelditu dira kanpoan. Edozein moduz, zure kasua azken hauetakoa baldin bada, hurrengo Gidan sartu ahal izateko emazkiguzuz zure datuak lehenbailehen. Zuzendu beharrekoa zuzentzeko deitu TTIPI-TTAPAKO telefonora (948 631188).

ERABILTZEKO ERREZA

Iazko «Gida 98»a erabili baldin bazenuen jakinen duzu erabiltzeko zein errexa den Gida hau. Izan ere, behar duzun telefonoa ahalik eta abudoen bilatzeko moduan ordenatu ditugu aktibidade desberdinak: Autobusak, Kafetegiak, Ostatuak, Zurginak...

Iazko Gida 98a erabili baldin baduzu jakinen duzu erabiltzeko zein errexa den liburuxka hau



Inguru honetako telefono interesgarrienak esku-eskura dituzu Telefono Gida 99ari esker.

Telefono zenbaki bat aurkitzeko, itsu-itsuan ari beharrean, lehenik Ihardueren Aurkibidea begiratzea gomendatzen dizugu, bilatzen duzuna zein orrialdetan dagoen jakiteko.

Bertzalde, eta berritasun bezala, «Telefona Gida 99» honetan beren buruaren anuntzioa jarri duten 536 komertzio eta zerbitzuen

zerrenda sartu dugu atzeko orrialdeetan. Merkatal-zerbitzu hoiek alfabetikoki ordenatuak daude izenaren arabera, eta beraz, hien telefonoa edo helbidea bilatzea aski gauza ximplea da.

TTIPI-TTAPA

AGENDA EGUNEZ EGUN

MENDI IBILALDIAK

ELIZONDO

► Otsailaren 28an

Astigarragara joanen dira Baztango Mendi-goizaleak.

► Martxoaren 7an,

berriz, Baigorritik Adar-tza joanen dira.

BERA

► Otsailaren 28an

Eskolamendira joanen dira. Irteera: goizeko 8,30etan Ikastolatik.

► Martxoaren 7an

Oletara; goizeko 8,30etan.

BIDIAK

XARETA

► Martxoaren 12an

Prehistoria eta protohistoriari buruzko bidai zientifikoa egiteko aukera izanen da. Informazio gehiago 23. orrialdean.

ERAKUSKETAK

BERA

► Otsailaren 22tik

27ra Guatemalari buruzko erakusketa zabalik da Berako Kultur Etxean. Arratsaldeko 5,30etatik 8etara.

GUARDIAKO BOTIKAK

112 Tfpora. deitu behar da

► Otsailaren 22tik

28ra Bera, Sunbilla, Elizondo (Lezaun) eta Goizuetan.

► Martxoaren 1etik

7ra Arantza, Ituren, Elizondo (Iturralde) eta Goizuetan.

► Martxoaren 8tik

14ra Etxalar, Narbarre, Urdazubi, Leitza, Elizondo (Lezaun) eta Goizuetan.

DISKAK



«The Pub Ibiltaria 3»

OSKORRI

ELKARLANEAN

Oskorri taldeak 1997an abiatu zuen "Pub Ibiltaria" izeneko proiektua, Euskal Herriko kantutegia bildu eta jendartean ezagutarazteko asmoz.

Oraingo honekin hiru disko dira karrikaratutakoak, denetara 52 kantu herriko abestu eta abestuarazi dituzte. Izan ere, zuzeneko emanaldietan jendearen partehartzea eskatzen dute Oskorrikoek, kantu herri-

koiaren izpiritua berreskuratu nahiean. Horretarako, CDarekin batera play back-a egiteko bertze disko bat gaineratzen dute, letren itzulpena eta partitura guzietan batera.

Joan den urteko abenduan grabatu zuten hirugarren "Pub Ibiltaria" hau, Bilboko Areatzan eta zuzen-zuzenean. Herri kantak maite badituzu, ezinbertzeko duzu Oskorriren trilogia hau.

Bi basurdetarako zakur salgai Zubietan. Ongiikasi-ak. ☎ 943 320 994.

5 hilabeteko **zakurra salgai**. Malamute arrazakoa, artzain zakur alemanarekin nahasia. Prezio onean. ☎ 948 393044 edo 948 451521.

Azpiko zaldia salgai. ☎ 948 453 170 (3etatik 4etara).

Paumak (pabo realak) salgai. ☎ 948 630 140.

Bi miga emari salgai. ☎ 943 623 130.

Bi behi gorriren deretxoak erosi nahi dira. ☎ 948 630323 (eguerditan).

Hamabi ardi salgai beren bildotsekin. ☎ 948 630 638.

ANIMALIAK

603 KLINIKAK

ALBAITERITZA KLINIKA

Txertoak, analisiak, kirurgia, pentsuak eta osagarriak
© 948 631362 • Legia 13 • BERA



DENETARIK

701 GALDU/AURKITUAK

Emakumezkoen **betaurreko graduatuak galdu** dira Bera edo Lesakan. Montura berdea dute. ☎ 948 631 030.

DENETARIK

702 SALEROSKETAK

Petroleozko estufa salgai, Zibro Kamin RCA 86B. 35.000 pta. ☎ 943 611 721.

Hiri gasarentzako **ur berogailua** salgai. Fagor FL100 10 litrokoa. Gutti erabilia. 15.000 pta. ☎ 943 611 721.

Kalefakzio zentralarendako **radiadorea** salgai, kontsumo ttikikoa. Programatazaille digitala. 22m² berotzen ditu. Urte batekoa. ☎ 948 627 623.

Biltegian gordetako gari, garagar eta olo **ahotza salgai** fardo haundietan. ☎ 948 30 22 08.

Ehun litrotako **tanke elektriko** salgai. ☎ 948 510 498.

Iturgintza eta elektrizitate tresnak salgai. ☎ 948 627 655 (arratsaldeko 8etatik aitzinera).

Denda bateko **bitrina-fri-gorifikoa** salgai. Egoera eta prezio onean. ☎ 948 592 114.

Haurrentzako **gela bikoitza** salgai egoera eta prezio onean. ☎ 948 637 026.

Bigarren eskuko **mobleak salgai**, egoera onean. ☎ 948 637 174.

Paretako erloju zaharrak erosiko nituzke edozein egoeratan. ☎ 948 581 403 edo 945 274 295.

Enpaketadora bat eta belar bolak salgai. ☎ 943 623 130.

Telebista eta bideo mer-



Bidali TTIPI-TTAPA herritik kanpo bizi diren lagun edo familiakoei

Bakar bakarrik bidaltze gastuak ordaindu behar dira.

Eskatu informazioa.

(+34) 948 631188

ke bat erosi nahi genuke, Ezpelura elkartearentzat. ☎ 948 451 746 (Begoña, goizez).

HARREMANAK

801 AGURRAK

Ainhua Arzuaga urrozta-rrari zorionak otsailaren 4an 24 urte bete dituelako. Zorionak eta besarkada haundi bat. Zure lagunak; Nekane, Izaskun eta Esther.

Iruñeko **Esther Granderi** zorionak urtarilaren 24an

22 urte bete dituelako. Zorionak eta muxu haundi eta berezi bat. Zure lagunak, Ainhua, Izaskun eta Nekane.

Arantzako **Izaskun Elizondori** zorionik beroenak otsailaren 16an 27 urte bete behar dituelako, muxu berezi bat zure lagunentzat: Nekane, Ainhua eta Esther.

Leitzako Tutenekoa **Uxue Zabaletari** zorionak eta muxu haundi bat otsailaren 2an 2 urte bete zituelako. **Jaione Larre** elizondarrak

martxoaren 10ean beteko ditu 15 urte. Zorionak kua-drilaren partetik.

Zorionak Itsaso Huizi, Naiara Riopedre eta Maitane Garziari beren urtebetetze eguna delako. Agerako lagunentzat eta Saioaren partetik.

Leitzako **Judith Mariezkurrenari**: gogoratzen al duzu ze nolako gaua pasatu genuen otsailaren 15ean? Esan genizun idatziko gurela. Jarrailu hain maja eta alaia izaten. Zure Elizondoko lagunak.



APEZTEGIA BERRIA

B U R D I N D E G I A

Baratzerako behar dituzun erreminta guziak

Elizagibela, 1
31740 DONEZTEBE

☎ 948 450 994



URTEBETETZEAK

Argazkiak berreskuratzeke, bidali sobrea zure helbidearekin.

OHARRA:
Argazki bakoitzarekin batera **35 Ptako 15 seilu**
bidali behar duzue. Gainerakoan ez dira argitaratuko.
Argazkiak **TTPI-TTAPA** TELEBISTAN ere aterako dira.



Candido Mutuberria eta **M. Asunción Bergara** lesakarrak otsailaren 16an 25 urte eginen dituzte ezkontuta. Zorionak eta ongi pasa, Kontxi, Belen eta Mikel zuen seme-alaben partetik.



Pantaleon Errandonea aranztarrak 62 urte bete ditu otsailaren 11n. Zorionak bere iloba Igorren partetik.



Mikel Larretxea doneztebarrak urte bat beteko du martxoaren 3an. Zorionak eta muxuak osabizeba eta lbaien partetik.



Izaskun zorionak 27 urte bete- tzeagatik. Afarian ikusiko dugu elkar. Ah, ahaztu gabe goraintziak eta zorionak Joseba Cilarren partetik.



Juanita Urrutiak otsailaren 21ean urteak bete ditu. Zorionak familia osoaren partetik.



Esther zorionak 22 urteak ongi onartu dituelako. Aerobik egiten omen duzu gorpuzta ongi mantentzeko. Ze gordea zeneukan, pillina!



Urrozko **Ainhoari** zorionak 24 urte bete- tzeagatik. Maletak prestatzen hasi, a ze oporrak pasatu behar ditugun. Izaskun, Esther eta Nekane.



Eider Pikabea Mixelenak 6 urte bete ditu otsailaren 14an. Zorionak estazioko ataxi-amaxi, atta eta osaba-izeben partetik.



Jon Ubiria Sarasola lesakarrak 2 urte bete ditu otsailaren 21ean. Aunitz urtez Ainhoa eta familia guziaren partetik.



Nerea Larretxea Agirre beratarrak 6 urte bete ditu otsailaren 20an. Zorionak familiaren partetik.



Oihan Larretxea Agirre beratarrak 9 urte beteko ditu martxoaren 5ean. Zorionak familiaren partetik.



Izaro Iribarren Indaburu etxalartarrak 4 urte beteko ditu otsailaren 26an. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.



Felix Telletxea Rekalde oiartzuarrak 38 urte beteko ditu martxoaren 2an. Zorionak bere familiaren partetik, karroza.



Lukas Eizagire Alzaga irundarrak 38 urte beteko ditu martxoaren 2an. Zorionak bere familiaren partetik, karroza.



Itsaso Huizi Pradanos beratarrak otsailaren 27an urteak egiten ditu. Zorionak familiaren partetik.



Naiara Riopedre Huizi beratarrak otsailaren 20an urteak beteko ditu. Zorionak familiaren partetik.



Jone Olaetxea Sanz beratarrak 5 urte beteko ditu otsailaren 25ean. Zorionak atta, ama, lehengusu-lehengusin eta ataxi-amatxien partetik.



Asier Goia del Moral beratarrak 2 urte beteko ditu otsailaren 28an. Zorionak eta muxu bat Elizondo eta Berako familiaren partetik.



Berako **Bixente** eta **Asier** osaba- ilobek otsailaren 25 eta 28an beteko dituzte "titantos" eta 2 urte. Zorionak Julenaren partetik.



Hegoa Telletxea eta **Asier Andueza** beratarrak 4 eta 7 urte beteko dituzte martxoaren 2an eta 9an. Zorionak familiaren partetik.



M'Angeles Gonzalez aranztarrak urteak beteko ditu martxoaren 1ean. Zorionak familiaren partetik. Aupa amaxi!



Mikel Larretxea Lukanbio aranztarrak urte bat beteko du martxoaren 3an. Zorionak pottoki! Ama eta aita.



Sole Goñi donamariarrak 13 urte bete ditu otsailaren 8an. Zorionak Maite eta Estibalitzen partetik.



Maialen Belarra doneztebarrak 7 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak eta aunitz urtez familiaren partetik.



Manoli Garzia lesakarrak 51 urte bete ditu otsailaren 5ean. Zorionak "Manolita" zure bi lankideen partetik.



Miren Juantorena Zuiñigak 5 urte bete ditu otsailaren 24an. Zorionak eta muxu handi bat familiaren partetik.



Hegoa Telletxea beratarrak 4 urte beteko ditu martxoaren 2an. Urte askoan! Izeba, osaba eta lehengusuen partetik.



Jon Erro Fagoaga lesakarrak 2 urte beteko ditu otsailaren 27an. Zorionak familiaren partetik.



Jose Mari Andueza eta **Pello Ordoñez** beratarrak urteak betetzen dituzte martxoaren 14 eta otsailaren 14an. Urte askoan! Koadrilaren partetik.



Joxe Mª Andueza eta **Asier Andueza** beratarrak urteak beteko dituzte martxoaren 9 eta 14an. Urte askoan biori! Familiaren partetik.



Mariana Lavín Condek 44 urte bete ditu otsailaren 17an. Zorionak bi lesakarren partetik.



Josu eta **Maialen Mitzteok** 2 eta 4 urte bete- tzen dituzte mar- txoaren 4ean eta urtarriaren 27an. Zorionak fami- liaren partetik.



Joan eta **Maiena Uhart** saratarrek 2 urte eta 4 urte bete dituzte. Zorionak aita, ama eta familiaren partetik.



Iñigo **Rodriguez Larretxea** lesakarrak 23 urte beteko ditu martxoaren 12an. Zorionak familiaren partetik.



Mari Paki Salgado lesakarrak 22an beteko ditu 36 urte. Zorionak zure familia eta berexiki zure sor- gin tikiaren parte- tik. Aunitz urtez.



Pekek 36 urte beteko ditu otsailaren 22an. Zorionak laneko bi lagunen partetik.



Jokin Pinatxo Olaziregik mar- txoaren 19an 3 urte beteko ditu. Zorionak fami- liaren eta batez ere Estixuren partetik.



Alfonso Feito urteak beteko ditu martxoaren 18an. Zorionak bere seme-alaba eta seme-alaben partetik.



Maria Ester Vertiz urteak beteko ditu otsailaren 28an. Zorionak bere emazte eta seme-alaba eta lagunen partetik.



Karmelet Tolosa irundarrak urteak beteko ditu martxoaren 6an. Zorionak!



Janire Andres Zapiain beratarrak 2 urte betre ditu. Zorionak familia guziaren partetik.



Iñigo Oskoz Gago doneztebarrak 3 urte bete ditu otsailaren 22an. Zorionak familiaren partetik.



Amaia Tapia lesakarrak mar- txoaren 4an urte pilla beteko ditu. Zori- onak 'ababa kama- rera'. Familia eta Maddalena.

Argazkia korreoz bidaltzen dutenei:

Kasu eman diru txanponak sobrean bidaltzen baldin badituzue. Gertatzen ahal da guregana ez ailegatzea.



RENAULT

Kontzesionarioa

PEDRO GARMENDIA, S.A.

FRANTZIARAKO ERREP.

TELEFONOAK:

94858 04 31 - 948 58 04 36

FAX: (948) 58 09 73

ELIZONDO



Martxoaren **14** ean
de Marzo

Bidasoaldeko

Ezkonagaien

Feria

Novios

del Bidasoa

ETXALAR HOTEL-BENTAN